

257. zenb.

PRESS
ATE




**Santamasetan
Denok
artisau eta
baserritar**



**URTE BARRI-BARRI
TXARRI-BELARRI
DAUKANAK
EZ DAUKANARI
KOLKUA BETE
MADARI!**



**ZUEN ZERBITZUAN: AUKEA, ITURBIDE EGOITZA,
UDALAKO INGURUGIRO ESKOLA,
DROGOMENPEKOTASUN ZERBITZUA, KIUB,
ESKOLA KONTSEILUA, ARRASATE IRRATIA,
EMAKUMEEN SAILA, GAZTERIA BATZORDEA,
MONTERRON KULTUR ETXEA, AMAIA ANTZOKIA.**



*Eguna labor
Eguzkia nekaturik bailebil
Natura geldi; lo
Ilargia Kaskarin; ajolarik ez
Udazkenak agur
Negua heldu jaku
Eta txarrixek gizendu
Etxean epel
Atarian hotz
Santamas da Arrasaten
Bete ditzagun kaleak
Txilibitu, danbolin
Kamela kaztaina
Txarrixek kurrin
Sagarrak ximel
Urtebarri hurbil
Ezti, intxaur, gazta
Baita bertsolari, bestela zurgin
Ez dago geratuko gaituenik*

URTEBARRI ON DANOI

ALKATEA



Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Ibaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasar, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohati).



ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jose Luis Feo.

“Fiesta”

Vilallonga jauna: Jose Antonio Urionabarrenetxearen iloba naiz, zure zorigaitzeko “Fiesta” liburuan eta Oñatin filmatutako pelikularen gidoiean “criminales de derecho común y montruos” bezala deskribatzen dituzun arrasatear bakezale horietako baten iloba. Bai, haietako hiritar bakezale bat, eta zure esanetan “mese-de bat egite arren”, zuek, faszistak fusilatu zenituztela.

58 urte igaro izan dira zu Arrasaten ibili zinenetik. 58 urte igaro izan dira hireak, zureak, Vilallonga jauna, nire aitona fabrikako irteeran atxilotu zutenetik. 1936ko azaroren 1ean, 58 urte direla!, fusilatua izan baino lehen, nire aitona bere azken eskutitza izango zena idatzi zuen. Eta nahiz eta bere emazte, hiru alaba, seme bat, ama eta arabei zuzendua izan, partzialki transkribatuko dizut. Irakur ezazu, Vilallonga jauna. Horrela dio:

“... Ondo daki Jainkoak nire inozentzia gertatzen ari den asuntu arriskutsu honetan eta bere amaierak kezkatuak nauka, baina atseginez onartzen dut Jainkoaren nahia eta bere asmoetara meneratzen naiz, estualdi honetan jartzen nautenei bihotz bihotzez barkatuz.

Jainkoak nahi beza berriro ikusteko zoria izan dezagun, orain arte baino hobeto zerbitzatu diezaiogun, baina horrela izango ez balitz eta bere albora deituko banindu, etsipena eskatzen dizuet eta

etzazuela nitaz penarik izan, daramazkidan sakrifizio guztiak eta gelditzen zaizkidanak, nere bekatuen barkamenerako eskeintzen baitituz eta ez daukat dudarik onartuko dituela eta bere ondora eramango nauela.

Ondo zain itzazue nire zoritarreko seme-alabak eta erakutsieziaiozue Jainkoa zerbitzatzeko eta euren etsaiei barkatzen, Berak barka diezaien.

... Ez diot inoiz nire aita (G.B.) gizarajoaren animaren alde Agur Maria bat errezatzeari utzi, Jainkoaren nahia bada, zeruan elkartuko garela uste dut, zuek ere ikustea espero dudan lekuan. Erakutsieziaiezue nire semei ohitura on hau eta eurak buruan dituela hilko den beraien zorigaitzeko aitargatik erregutu dezatela.

...Barkamena eskatzen dizuet eman dizkizuedan disgusto guztiengatik, gizarajoak. Ez dakit zer suerte egokitu zaidan, baina Jainkoak bere ondora deituko banindu, gustoz egingo dut ene bizitzako sakrifizioa, eta nire odolak gizakien ira ase dezala eta bakea egon bedi. Agur, agur!”

Hau da, zure ustez, Vilallonga jauna, “un criminal, un monstruo”ren testamendua. Ulertuko duzu bere barkamenaz gain, Vilallonga jauna, nire desprexu egizale, publiko eta sakonena bidaltzea.

JOSE ANTONIO URIONABARRENETXEA EZKURRA

Nor naiz ni? (1967)

Nor naiz ni
hemen galdezka, zain egoteko,
patuaren kurpilek
nire bizitza poliki-poliki hausten duten bitartean?

Nor naiz ni?
Garai batean gauzak maite izan nituen,
baina nire uste nituen amets haiek
Desagertu egin dira orain,
eta eroritako malko izkutu haiek
irakin egiten dute nire barruan

urte galdu haietan pentsatzen dudanean;
krimen urteak, hain bihotz itsuaren pasioak;
Sines dezakezu?

Eta orain azalpena egiten dudanean,
gauza bera sentitzen dut

eta nire bakardadearen oihartzunean negar egiten dut.

Nor naiz ni?
Zelako gutxi ikasi dudan bizitzatik!
Hitz hutsak, koldar baten baldintzak

Bultzatu eta eskuz esku pasatuak
berba egiteko, jeikitze zeko gauza ez dena

eta nire familiaren begietan ere hustasunak
gezurrak gogora ekartzen dizkit

promesak eta ekintza bukagabeak
eta berriz ere korrika egin nahi nuke

Baina orain ezin dut inora ihesik egin.

Nor naiz ni?
Orain, lagun, tril egin dugu ostera

Eta ikusiko dugu nor makurtzen den

Heriotzaren urre koloreko begirada tentsoa.

Nork irabazten du bizitzaren saria eta nor hiltzen da.

Ni honek, lagun, bai, ni honek

Behin eta berriz hilko du bizi izateko.

Mendeko goxoaren eztarriari heltzeko.

Izan ere, konkista dezaten dago bizitza hemen.

Nor naiz ni?
Joe Mc Donald
Country Joe & The Fish

Langileek Benjamini, eskerronez
24-11-94

JOSEBA COSTANA
(Erredakzioan itzulia)

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07


**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

NEREA

ARRASATE




Gizonezko eta emakumezkoen Lentzeria ZORIONAK DENOI!

LORAMENDI



*Lasai lagun, etzaitz
kezkatu gehiago
aurtengo Olentzero
Loramendin dago*

Zure zerbitzu informatikoa



• Ekipo informatikoen salmenta, mantenimendu eta konponketa.

• Sistema informatikoen aholkularitza.

• Material informatikoa (Disketteak, inpresora zintak...).

• Sare informatikoak.

• Software-a.

• Salmenta punturako terminala (T.P.V).

AIDE

Informatika

Basabe poligonoa, FO-9. 20500 ARETXABALETA

 771372



ZARRAOA



- Larruzko artikuluak
- Kosmetika artikuluak
- Bitxiak
- Opariak
- Osagarriak
- Estetika kabina

Kanpantorpea, 4 ☎: 79 12 19

Zer iruditzen zaizu Parrokia berritzeko diru-eskaera?



Tomasa Bara
Etxekoandrea
(44 urte)

Ondo iruditzen zait, baina niri oraindik ez zaizkit dirua eskatzera etorri. Etor-tzen direnean pentsatuko dut zer egin.



Luis Trojaola
Jubilatua
(64 urte)

Idea txarra ez da. Apur-txo bat eman egin beharko dugu.



Juli Berezibar
Etxekoandrea
(78 urte)

Nik zerbait eman dut, bertakoa naiz eta. Eskabi-deak ez dira beti ondo har-tzen baina herrikoa denez, eman egin behar.



Agustin Azkoaga
Jubilatua
(81 urte)

Oso ondo. Diru aldetik jendea ez dabil ondo, baina eliza hori kontserbatu egin behar da. Nik behintzat eman dut dirua.



Ana Maria Moneo
Etxekoandrea
(50 urte)

Ondo. Arrasaten gera-tzen zaigun gauza garran-tzitsu bakarra da, beraz kon-tserbatu egin behar da. Ba-koitzak ahal duen neurrian lagundu beharko luke.



Sinesio Rodriguez
Langabetua
(58 urte)

Ni Zigarrolan bizi naiz eta parrokia erdikaldekoa da. Baina laguntza eskatzen badute, lagundu egin behar-ko da.



Rosario Azula
Etxekoandrea
(64 urte)

Nik uste dut merezi due-la ematea. Denona da eta denontzat abantaila da eliza dotorea edukitzea. Nik badut dirua emateko asmoa.




Jesus Elkoro
Jubilatua
(81 urte)

Ondo dago. Beste herri batzuetara joaten gara gauza zaharrak ikustera eta hemen-goia utzi? Nik eman behar dut dirua.

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

IKASTARO BERRIAK

(2. hiruhilabetean)

Goizez (9,30etatik 12etara bitartean)

Gauzez (6,30etatik aurrera)

— **LARRUGINTZA:** asteazken eta ostiraletan

— **SEXUALITATE TAILERRA:**
asteartetan

— **LANA TOPATZEKO TEKNIKAK:**
astearte eta ostegunetan

— **BOLILOAK:** asteartetan

— **SUKALDARITZA ETA GOZOGINTZA:** astearte eta ostegunetan

— **TAPIZAK ETA MAKRAMEA:**
ostegunetan

— **ERLAJAZIO MASAIA:** asteazkenetan

— **SUKALDARITZA:** astearte eta ostegunetan

IKASTURTE OSOKO IKASTAROAK (arratsaldez)

Hezkuntza pertsonala, puntua, joskintza, kultura orokorra, marrazki eta pintura, e.a...

Ikastaro hauen eta beste batzuen ordutegia eta prezioak jakiteko, dei egin:



Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua.
Gipuzkoa-Donostia Kutzaren gizarte-ekintza.

Sta. Teresa, 12 ARRASATE Tfnoa: 79 04 59

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.


Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Parte hartzen duzu Santamasetan?



Agurne Juldain
Ikaslea
(15 urte)

Bai, trikitixa eskolarekin irteten dut. Trikitixa jotzera baserritar jantzita joaten naiz baina gero aldatu egiten naiz, jende gutxi jazten da base-ritar eta.



Iñaki Gorostidi
Fagorreko langilea
(38 urte)

Baserritar erropak ez ditut jazten baina etortzen naiz kalera herri kirolak ikus-tera eta. Aurten babajana egingo dugu lagunartean.



Marisa Uriarte
Fagorreko langilea
(41 urte)

Ez naiz baserritar jazten baina jaietan parte hartzen dut. Eguerdian lagunarteko baz-
karia egiten dugu.



Jaime Epelde
Ikaslea
(20 urte)

Gauean kalera irteten dut baina ferixa ere ikusten dut. Santamas egunean herri baz-
karira joango gara, iaz oso ondo pasa genuen eta.



Eguzkiñe Loiti
Dendaria
(33 urte)

Goizetan lan egiten dut eta eguerdian herri bazkari-
ra joaten gara umeeekin. Han oso ondo pasatzen dugu, bai guk eta baita umeeek ere.



Lander Penas
Ikaslea
(12 urte)

Ez naiz baserritar jazten, baina kalera irteten dut, batez ere txistorra jatera.



Angel Otxandiano
Roneoko langilea
(48 urte)

Gustatzen zaizkit Santa-
masak, oso giro ona egoten da. Ferixa ikustea asko gus-
tatzen zait.



Carmen Galdos
Etxekoandrea
(60 urte)

Niri eguerdi inguruan bueltatxo bat egitea gustatzen zait, ferixa ikustera irteten dut. Gero gauean afaria egi-
ten dugu soziedadean.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Salmenta eta
zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialoia79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterrongo liburutegia
 Monterron.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 16
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
Larunbata 17
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías
Igandea 18
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.
Astelehena 19
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.
Asteartea 20
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.
Asteazkena 21
 Egunez eta gauez: Amezua. Sta. Mariña.
Osteguna 22
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

16 OSTIRALA

ZINEA
 "Cumbres borrascosas" 7etan eta 10etan.

TRIKITILARIAK
 Arrasateko trititixa eskolak baztar nagusia egingo du Udaltzeko Pleno Aretuan arratsaldeko 7etan. Ondoren txikiteo musikala egingo dute kaleetan zehar. Gaueko 9etan Eskola Politeknikoko jangelan afaria izango dute.

UDAL EUSKALTEGIKO AFARIA
 Kataide jatetxean afaria izango dute Udal Euskaltegiok, gaueko 9etan.

ROCK JAIALDIA
 Lin Ton Taun, Santafe eta Bizkar Hezurra taldeekin, Musakolako kiroldegian gaueko 10.30etan.

ARGAZKI ERAKUSKETA
Pedro Luis argazkilariak Gasteizko Europa zentroan argazki erakusketari jarri du. Abenduaren 30a arte egongo da ikusgai. Goizez 9etatik 1.30etara eta arratsaldez 4etatik 8.30ak arte. Emulsio bidezko transparentziak osatzen dute erakusketa.

17 LARUNBATA

ZINEA
 "El Especialista" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

"TE DEUM"
 Goikobalu, Gorosarri eta Goi Argi abesbatzek eta Bergarako Orfeoak, Berliozen Te Deuma abestuko dute Bergarako San Pedro Parrokian gaueko 10.30etan Baionako orkestrak lagunduta. Sarrera: 1.500 pta.

EGUNKARI FESTA
 Donostiako Anoeta belodroman Egunkari festa ospatuko da. AEDk autobusak antolatu ditu jaira joan nahi dutenentzat. Garibai geltokitik arratsaldeko 4etan irtengo dute autobusek.

KALE ANTZERKIA
 "Ni Fu Ni Fa" Malabar taldearekin "Hau-Tu- Bus" kale antzerkia, Herriko plazan arratsaldeko 5etan.

18 IGANDEA

ZINEA
 "El Especialista" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

ARIN-ARIN ETA FANDANGO TXAPELKETA
 IV. Binakako Arin-Arin eta Fandango txapelketa, 14 urteko beherakoentzat. Sebero Altube Plazan eguerdiko ordubatean.

DANTZALDIA
 Eguzki taldearekin dantzaldia, Herriko Plazan, arratsaldeko 7etatik aurrera.

KOADRILEN-ARTEKO TXAPELKETA
 Arrasateko saskibaloi taldeak antolatzen duen koadrilen-arte gabonetako txapelketa abenduaren 23an hasiko den arren, larunbatean bilera informatiboa izango dute Monterronen eguerdiko 12etan, txapelketari buruzko argitasunak emateko.



SANTAMAS XII. IGERI TXAPELKETA
 Arrasateko Igeri Elkarteak antolatuta Santamas XII. Igeri txapelketa jokatuko da abenduaren 17an Musakolako kiroldegian. Txapelketa arratsaldeko 4etan hasiko da.

18 IGANDEA**ESTREMADURAKO MIGEN EGUNA**

Egunean zehar Migak jateko aukera egongo da San Andreseko plazan, ondoren dantza eta kantu emanaldia emango dute Corazon de Encina taldekoek. Estremadurako produktuak egongo dira salgai goizean zehar.

KONTZERTUA

Letoniako Orkestra eta Donostiako Orfeoiaren kontzertua, Amaia antzokian, gaueko 9.30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

ANGIOZARKO INGURUAK EZAGUTUZ

Angiozarko inguruak ezagutze-ko irteera. Goizeko 9etan Angiozarko plazatik irtengo dute.

19 ASTELEHENA**ZINEA**

"El Especialista" 7etan eta 9.30etan.

SARI BANAKETA

Arrasate lehiaketa eta Jokin Zaitegi itzulpen sariketaren sari banaketa. Pleno Aretoan arratsaldeko 7etan.

BATZAR NAGUSIA

San Frantzisko Xabier ikastolak batzar nagusia, arrunta eta berezia egingo du, Gazte-luondoko batzar aretoan. Lehen deialdia 6etan izango da eta 6.30etan bigarren deialdia.

LANPOSTUA BILATZEKO TEKNIKAK

Urtarrileko astearte eta ostegun guztietan 9.30etatik 11.30etara. Nekane Plazaolak emango du ikastaroa. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatuta. Izenemateko epea zabalik dago; Informazio gehiagotarako eta matrikula egin ahal izateko Sta Teresa kaleko 12ra joan zaitezke edo 790459 zenbakira dei egin.

20 ASTEARTEA**ZINEA**

"El Especialista" 7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

"Euskara Sustatzeko hitzarmenaren sarrera ekitaldia" Monterron Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan. Euskara batzordeak antolatutik.

ETBKO LEHIAKETA

"Gutxigora behera" ETBko lehiaketara joateko autobus antolatu ditu AEDk. Grabaketa abenduaren 26tik 29ra bitarteko egun batean izango da. Goizeko 9etan irtengo du autobusak Arrasatek eta bertan bazkaldu eta gero, arratsalderako bueltatuko dira. Izenematea abenduaren 20a baino lehen AEDn.

ERAKUSKETA

Made in Arrasate: "Museo industrialia sortzeko bidean". Abenduaren 21etik urtarrilaren 23ra, Monterronen. **Ordutegia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jai egunetan 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.**

**KONTZERTUA**

Gorosarri, Zumarragako Goi Argi, Bergarako orfeoia, Gokobalu eta Baionako orkestraren eskutik. Amaia antzokian 23 ostiralean arratsaldeko 8etan.



Museo Industrialia sortzeko bidean

21 ASTEAZKENA**SANTAMAS BEZPERA**

Arratsaldeko 5etan, Auskalo taldearekin kale animazioa Herriko Plazan. 7etan, Etxafleroak eta Arrasateko Kiliki eta Erraldoien kalejira Dultzainariak lagunduta. 7.30etan, Inkansables txarangarekin kalejira herriko kaleetan eta trikitilariak kalejira. Gaueko 11etan, Joselu anaiak herriko Plazan. 12etan Arrasateko Dultzaineroekin kalejira eta 12etan Zezen suzkoa Herriko Plazan.

HAUR ABESBATZA

Haur Abesbatzaren emanaldia, Amaia Antzokian arratsaldeko 7etan. Partaideak: La Merced ikastetxeko abesbatza, San Viator ikastolako abesbatza, San Frantzisko Xabier ikastolako abesbatza, Arrasate musikaleko abesbatza, Goikobalu txiki eta Goikobalu abesbatza.

HECTOR BERLIOZ-en "TE DEUM"

Abenduaren 23an Te Deum obra eskainiko dute Gorosarri abesbatzak, Bergarako Orfeoia, Goiargi Abesbatzak eta Goikobalu abesbatzak, Baionako Orkestra sinfonikoaren laguntzaz. Amaia Antzokian arratsaldeko 8.30etan. Goikobaluk antolatuta. Abenduaren 16tik aurrera sarrerak salgai Mendi tabernan 1.500 pezeta.

22 OSTEGUNA**ZINEA**

"Maité" 7etan eta 9.30etan.

SANTAMAS EGUNA

9.30etan Diana. 10etan fruitu, barazki, hegazki, unxi eta Euskal Herrian eskuz egingako gazten lehiaketa, erakusketa eta salmenta, Azokan. 10etan Nekazal Makinariaren feria Zaldibar inguruan. 10.30etan Artisanen erakusketa eta exhibizioa Jokin Zaitegi Plazan. 11etan Lore gazteak eta Arrostitz dantza taldeak, dultzainari, txistulari, trikitilari eta koplariak, Iturengo Tuntturroak eta Incansables txarangak lagunduta kalejira. 11.30etan Fruitu, Hegazti eta unxi eta gazta lehiaketen sari banaketa Azokan. 12etan Eskaparete lehiaketaren sari banaketa. 12.30etan Txalaparta saioa Herriko Plazan. 12.30etan Santamas Aizkolari txapelketa, Zaldibar pilotalekuan. Ordubatean harrijasotzaileen erakusketa, Zaldibar Pilotalekuan. 1.30etan Arrasateko folklore talde guztiak batuta, saio berezia Herriko plazan. 2.30etan Herri bazkaria Musakolako kiroledegian. 8.30etan Larrain dantza eta txarri dantza Herriko Plazan. 11etan Gaubela taldearekin dantzaldia Herriko Plazan eta 12etan Txerri zozketa Herriko Plazan.

BERTSO SAIOA

Egaña, Lizaso, Sarasua, Peñagarikano eta Maddalen Lujanbio bertsolariak, Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. AEDk antolatuta.

ERAKUSKETA IBILTARIA

"Maltzaga-Urbina autopista proiektua" erakusketa Lau bideko plazan. Abenduaren 22tik urtarrilaren 1era arte izango da ikusgai. Debasak antolatuta.

**EKITALDIA**

Felix Likiniano iraultzaile arrasatearraren inguruan. Pilar Iparragirreraren "Felix Likiniano: ezina ekinez egina" liburuaren aurkezpena eta Manuel Chiapuso, Likinianoren adiskidearen hitzaldia. Abenduaren 23an, arratsaldeko 7etan, Monterronen.

GAZTE TAILERRAK

Abenduaren 26, 27, 28, 29 eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an Gazte Tailerrak Santamainan: ordutegia arratsaldeko 4etatik 7etara. Txatxilipurdik antolatuta. Izenematea San Andres eta Musakolako gazte txokoetan, gazte bulegoan eta Txatxilipurdi elkarrean egin daiteke.

**LIBURU ETA DISKA AZOKA**

Abenduaren 21, 22, 23 eta 24 Liburu eta Diska azoka, Sebero Altube Plazan. AEDk antolatuta.

Giza eskubideen eguna

Joan den zapatuan giza eskubideen nazioarteko eguna ospatu zen Arrasaten, Amnistiaren aldeko batzordeak antolatuta. Preso daudenen eskubideak aldarrikatzeaz gain, Arrasateko preso guztiei omenaldia eskaini zitzairen. Azken 10 urte hauetan preso daudenak ere era berezian gogoratu ziren eta horien senitartekoez lore sorta jaso zuten. Arrasateko presoek dagokienez Pedro Guridik, Ion Agirrek eta Pako Martinek 14 urte daramatzate preso; Jesus Mari Zabartek eta Jose Gabriel Urizarrek 10 urte; bukatzeko Eugenio Barrutiabengoak 10 urte daramatza deportaturik.

Katuen testamentua

Abenduaren 3an Katuen Testamentua ikuskizun aparta eskeini zuten Oskorri, Kukubiltxo eta Kepa Junkerak. Musakolako kirolegian ehundaka haur bildu zen eta kantatzeko aukera izan zuten. Txikiak ondo pasatzeaz gain, umeein joan ziren nagusi eta gurasoek ere oso ondo pasa zuten.

Ikuskizuna, Arrasateko Udalak eta Eroskik antolatu zuten.

Hitzaldia

Onartu berri den alokairu lege berriaren inguruan informazioa emateko, hitzaldia izan zen asteazkenean Deba Garaia Inmueble eta finantza agentziak antolatuta. Hitzaldia hiru abokatuk eman zuten eta legearen nondik norakoak azaldu zizkieten Monterronera hurbildutako guztiei.



Nafarren eguna

Zapatuan, San Frantzisko Xabier eguna ospatu zuten Arrasate eta Aretxabaletan bizi diren nafarrek. 12etan meza izan zuten parrokiaren eta ondoren bazkaria Aretxabaletako Taberna Berri jatetxean. Nafarroako zaindariaren egunean elkartzearen ideiarekin aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa dute nafarrek. Izan ere, Arrasaten gustora bizi diren arren, jaioterria bihotzean dute.

Ingurugiroaz kezkatuak

Ingurugiroarekiko kezka duten hainbat herritarrek bilera egin zuen asteazkenean. Hasierako batzar horretara, Deba Garaiko jendea hurbildu zen eta euren asmoa talde bat eratzea litzateke. Bileran esan zenez, talde ekologistetan dauden lagunek gain, besteek ere lan egin behako lukete natura zaintzen. Lehen topaketa horretan, lantaldea eratu eta ekintza konkretu batzuk egiteko konpromezua hartu zen.

San Nikolas eguna

Urtero moduan, abenduaren 6an San Nikolas eguna ospatu zen. Herriko plazara hurbildu ziren gaztetxoek, San Nikolas abestia kantatu eta Udaletxeko balkoitik bolo-boloan bota ziren goxokiak jasotzeko aukera izan zuten. Kantaren kantaz eztarria urratu eta gero, ondo merezitako goxokiekin eztarria lasaitzeko aukera izan zuten.



Ruandaren alde espedizioa

Domekan pasa zen Arrasateetik, Ruandarako dirua batu eta elkartasuna lortzeko Bergaratik irten duen espedizioa. Guztira 24 txakur izango dira lerei tiraka eta asmo horrekin hilabetean Euskal Herri guztia zeharkatuko dutenak bost lagun izango dira. Ekimen horrekin herritarren, etxe komertzialen eta erakundeen dirulaguntza lortu nahi dute eta ondoren dirua Ruandara joango da. Oraingoan, Bergarako Udalak 600.000 pezetako laguntza eman die eta espedizioa bukatu orduko beste laguntza batzuk jasotzea espero dute.

JAIOTZAK

- Ariane Vita Zarraoa. Azaroaren 25ean.
- Markel Pietro Muñoz. 29an.
- Nerea Rodero Urutia. 30ean.
- Yulen Pardo Tristan. Abenduaren 6an.

EZKONTZAK

- Migel Angel Rodriguez Rege-ro eta Maria Begoña Kortabarría Abarrategi. Abenduaren 3an. Zibilez.
- Guillermo Pascual Garrido eta Joaquina Mejias Martinez. 3an. Zibilez.
- Pablo de la Trinidad Rozas Elizalde eta Miren Osane Lizarralde Urrutia. 3an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Pedro Tejedor Alondo. Azaroaren 20an. 76 urte.
- Felix Portalo Martin. 22an. 62 urte.
- Vicente Navero Dominguez. 22an. 67 urte.
- Juan Uribetxebarria Mondragon. 22an. 85 urte.
- Felisa Etxebarria Goenaga. 22an. 80 urte.
- Juan Larrañaga Aranzabal. 23an. 88 urte.
- Emilio Fuentes Hernandez. 24an. 89 urte.
- Prudencio Pildain San Migel. 25ean. 73 urte.
- Antonio Sanchez Jimenez. 25ean. 64 urte.
- Josefa Asuncion Murua Etxebarria. 29an. 86 urte.
- Iñigo Ugarte Zubia. 29an. 21 urte.
- Matilde Arrolalde Gaztiz. Abenduaren 1ean. 76 urte.
- Nikanor Mujika Madinabeitia. 2an. 65 urte.




* XABIER ARRUTI

Gure lantxoak merezi ote?

Orain dela 25 urte eraiki zen eskola honetan, zerbitu azpimarratu behar badugu, Euskera eta Pedagogia alde-tik egin den aldaketa da, dudarik gabe.

Duela 18 urte A ereduaz irakasten bagenuen ere, laster konturatu ginen horrela ezin zela gauza garbirik at-
era, ez eta ondorengo B ereduarekin ere. Erreflesio bat egin ondoren, konturatu ginen D eredu ez zela ikas-
lego honi erantzuteko metodo-
logia egokia, murgiltze
metodologia baizik. Cana-
dan eta geroztik Catalun-
yan sustraitutako metodo
honek badu lekukorik gure
eskualdean. Gure bailaran
ere mugimendutxo bat bada-
go, eta denok, Herri Eskole-
takoak eta Ikastoletakoak,
elkarturik ari gara metodo-
logia hau arautzen, zehazten
eta lantzen gure ikastetxe-
tan. San Andres Herri Esko-
lan ere bai.

Baina argibide bat, oraindik argitu ez diren-
tzat. Murgiltze metodologia
ez da D eredu, hau ama
hizkuntza euskara dutenen-
tzat da, eta murgiltze meto-
dologia ama hizkuntza erde-
ra dutenentzat da. Euskaraz
irakasten dugu dena, baina
erdera poliki poliki sartuaz.
Emaizak ezin hobeak dira,
erdera 1. hizkuntza besteak
bezalaxe ikasiz, euskera gai-



*Ez da nahikoa
euskaraz
ikasgelan
hitzegitea ;
euskerataz
jabetzeko
komunikazioa
behar da*

nera ikasten dute. Horretar-
rako, ordea, metodologia
eraginkorra behar, errekurto
ugari, ulermena, ahozker
eta nahiz ahoz nahiz idatziz
atal hauen produkzioa lortu-
ko duen metodologia.

Ez da nahikoa euskaraz
hitzegitea ikasgelan. euske-
rataz jabetzeko komunika-
zioa behar da, eta hizkuntza,
gure edukinak elkar truka-
tzeko tresna da.

Hau dela eta, motibazio
eta jarrerak oso garrantzi-
tsuak dira euskerataz jabe-
tzeko. Jabetzeta esaten dut
eta ez ikasketa, erdera lehen
hizkuntza bezala, jabetu
behar du euskera ere ikasle-
ak. Metodo hau komunika-
zio eraginkor batean finka-
tzen da, ikasleentzako egoe-
ra esanahikor eta estimula-
garriak erabiliz. Hau eze-
zik, interekintza pertsona-
lak beharrezkoak dira, eza-
guera edo jakintza konparti-
tuak ditu sustrai metodo
honek. Horrela lantzen dugu
euskaraz San Andres Herri
Eskolan. Orain dela 18 urte-
ko zientzia-fikzio ametsa,
errealitate bihurtu dugu gure
eskolan, hau da, Eskola
nazionala herri eskola eta
euskalduna bilakatu.

* SAN ANDRES HERRI
ESKOLAKO ZUZENDARIA

USTEAK USTE

LIBURUAK

Aspaldian ez naiz
Durangon izan. Liburu
azokan, esan nahi dut.
Horrekin ere ok eginda
nagoelako edo, beste
zitaleku askorekin bezala.
Izan ere, sekula euskaraz
berba erdi esaten ez
dutenak Kilometrotan
ikusten diren moduan
ikusten da Durangon ere
gutxien uste dena,
"nobedadeak ikustera"
joanda. Beinke
nobedadea, zenbaitentzat
liburu bat eskuarte-
n izatea.

Eta moda horretan
argitaletxeek dena batera
ateratzeko aprobetxatzea
ez da milagro. Liburu bat
azokaz kanpo ateratzen
duen idazlearena
beharbada milagro.
Neuk behintzat, bultza-
bultzaka liburuak ikustera
joatea baino, amorru hori
urtean zehar liburu
dendetan tantaka asetzea
nahiago. Badu xarma
atentzioa eman dizun
liburuaren bila joateak,
edo edozein arratsaldetan
apalaz-apala begiak
joaten utzi eta zirrara
egiten dizunari tira
egiteak. Norbere buruari
zer erregalu hoberik.
Eta erregaluz ari
garenez, datozen
egunetarako liburuak
oparitzea pentsatu
duenari, zorionak. Baina
boladatako betekada
baino, horretan ere ondo
aukeratuak tantaka-
tantaka ematea hobe.
Erosi, edo Monterrongo
apalak arindu, zorionez
aukera eta aholku ona
dago han eta.

ARANTZAZU LOIDI

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konprometzu barik**



Tallerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

Kolokan dago estazio zaharreko eraikinaren berrikuntza

Orain dela gutxi estazio zaharreko eraikina berritzen hasi dira, laster bertan jarriko baitira INEMeko bulegoak; baina oraindik kolokan dago obra horiei akabera emateko ardura nork hartuko duen.

Udalak proiektua egin zuen eta orain, obren zuzendaritza eramango du. INEMek, berriz, enplegua sustatzeko programaren barruan hogeit hamar langile kontratatu ditu konponketak egiten hasteko, baina langile horiei martxoaren 31n bukatuko zaie kontratua. Martxoaren bukaera alderako eraikinaren estruktura eta gainaldea bakarrik eginda izango direla kontutan izanik, obren jarraipena nork egingo duen zehaztu beharko dute INEMek eta Udalak. Zehazki, barruko lanak nork egingo dituen zehaztu beharko da.

Gauzak horrela, baliteke obrak amaitu gabe geratzea, beste programa baten

bidez langileei kontratua luzatzea edo Udalak obrak berak bukatzea erabakitzea.

Orain arte estazio zaharreko eraikinean egon direnei Leniz zeramika esko-

lari eta Deba Garaiko zikloturisten elkarteari, momentuz alboan dagoen beste eraikin bat utzi diete. Toki hori behin-behinekoa izango da eta geroago beste lokalak emango diete.



Berrikuntzak egiten hasi direnez, estazioan ezin da autorik aparkatu.

Berrikuntzak Musakolako eta Iturripeko kiroldegietan

Asteleheneko gobernu batzordean, Musakolako kiroldegirako 13.516.187 pta eta beste 1.293.442 pta zuzentzea onartu zen Iturripekorako.

Musakolako kiroldegian goiko bulegoak moldatu eta berritu egingo dira eta hementik aurrera bulegoko lan guztiak hor egingo dira. Momentu honetan bulegoko lanak banatuta daude eta berrikuntzekin, lan horiek zentralizatu egin nahi dira. Behin



Bulego guztiak zentralizatu egin nahi dira Musakolan.

obrak bukatuta, edozein paper bete nahi duenak goiko bulegora jo beharko du eta ez atarian dagoenera, orain egiten den bezala. Lan horiek egiteko beraz, ez da zuzenean Kiroldegira sartu beharrik izango.

Iturripeko kiroldegian bestalde, kanpoan dauden komunetan aldagelak egingo dituzte. Aurrerantzean beraz, aldagelak kanpoan eta barruan izango dira.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**ALTAMIRA
KLINIKA**

Mikrotxipa jartzea
derrigorrezkoa da.
Kanpaina
abenduaren 31ra arte

J. L. Iñarra, 24 Behea
☎: 79 74 89

**MARGOAK
JUANMA**

Margoak, paperak,
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17



6.245.000 pta gastatuko dira aurtengo Santamasetan.

Gutxitu egin da aurtengo Santamasetarako aurrekontua

Iaz baino diru gutxiago gastatuko da aurtengo Santamas jaien egitaraua antolatzeko. Hala ere diru murrizketa hori ez da oso handia izango eta antolatzaileen esanetan, hasiera batean pentsatu zuten egitarauak ez du aldaketa handiegirik izan. Iazko Santamasek 6.350.000 ptako aurrekontua izan zuten eta aurtengoek, berriz, 6.245.000 ptakoa.

Hasiera batetan, aurtengo jaiak antolatzeko 6.405.000 ptako aurrekontua aurkeztu zuten gobernu batzordean baina gobernu batzordetik aurrekontua gutxitzea eskatu zen eta azkenean 200.000 pta murriztu dira.

Santamas jaiak antolatzeaz, "Santamas komisiñue" eta Arrasateko Udala arduratzen dira, baina batez ere komisiñuek protago-

nismo berezia duela esan daiteke. Horregatik, aurrekontuaren erdia eurek gestionatu dute, 3.925.000 pta. Rock jaialdia, arin-arin eta fandango txapelketak eta herri bazkaria antolatzeaz arduratzen da komisioa besteak beste. Geratzen den dirua, ostera, dantzaldiak eta umeentzako beste ekintza batzuk antolatzen gastatuko du Udalak.

Bestalde, aurten ere izango da txosnarik ohizko tokian. Txosnak jartzeko bi eskari egin ziren eta azkenean eskubaloi taldeari bakarrik eman zioten baimena. Urtero moduan gainera, Santamas egunean txistorra, taloa eta beste jaki batzuk salgai jarriko dituzte honako taldeek: Elkarrik, Egizanek, Igeri Taldeak, AEK-k eta Ekinek.

Santamasetako lehiaketak

Santamas egunean hiru lehiaketetan parte hartzeko aukera izango da. Batetik eskaparate lehiaketa dago eta dagoeneko, Udaletxeko kultur sailean izena eman dute parte hartzea erabaki duten dendariak.

Lehiaketa horri dagokionez, irabazleak 30.000 pta eta garaikurra jasoko ditu, bigarrenak 25.000 pta eta hirugarrenak 20.000 pta.

Bestalde, Santamas XII. argazki lehiaketa ere jokuan egongo da. Atal horretan, bilduma onena aurkezten duenak 20.000 pta jasoko ditu, bigarrenak 15.000 pta eta

Txoronpioren argazkirik onena aurkezten duenak 10.000 pta. Aipatutakoaz gain, Santamas egunean fruitu, barazki, hegazti, untxi eta gazta lehiaketa egongo da. Atal horietako irabazleek saria jasoko dute eta beste bi sari ere izango dira, barazki sorta ekologiko onenari eta Arrasateko baserrien artean barazki sorta onena aurkezten duenari emateko.



GRONDO

elektrizitatea

* Elektragaiak

* Instalazioak

* Automatismoak

* Proiektuak

* Argiztapena

* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76

ARRASATE

BENGOA

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

Zerkaosteta, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 28 85

OYAL

*Gabon baretan
zure umeak
alaitasunez eta
zerionez jartzeko...*



ERDIKO KALE, 48

ARRASATE

☎: 79 18 00

∞∞∞∞ **LILURIA** ∞∞∞∞
OIHALAK
ZORIONAK
 Zerkaosteta, 5 Behea ☎: 79 89 72

MERKEKILO
 Oihalak pisura
 Zorionak
 eta urteberri on!
 Ferrerías, 5
 ☎: 79 15 00

AMAGARA

ESTETIKA
ZENTRUA
Zorionak
Jai hauetan!
ERDIKO KALE, 54
ETXABEA
ARRASATE
 ☎: 79 09 09


HAURTOKO
 Arrasate Pasealekua 4, Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE

NAROKI
 Liburudenda
ZORIONAK
 Erdiko kale, 23
 ARRASATE

ARTOLA
KOMERTZIALA
 Zerkaosteta, 3
 Tfnoa: 79 14 40
 ARRASATE

TXURI-BELTZ
 mertzeria
ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON
 Iturriotz, 33

Baster-alde

Jatetxea
Denboraldiko platerak, giro onenean
 Galartza auzoa ARETXABALETA
 Tfnoa: (943) 79 24 58

 **FLORES MONIKA**
 • Koroak • Ezkontzarako lore sortak •
 • Landareak • Lore guneak •
 Mondragones kalea, 9 etxabea Tfnoa: 79 04 84
 ARRASATE

beatriz
Oinetakoak eta Poltsak
Santamas eta Gabon jai zoriontsuak denontrat
Erdiko kale, 11 **ARRASATE** **Tfnoa: 79 14 33**

80. urteurrena bete dituzte parrokiako organuak eta organujoleak

Atzo bertan 80 urte bete zuten San Juan parrokiako organuak eta baita azken urteetan organua jo duenak, David Arzamendik.

Arzamendi arrasatearra, azken 62 urtetan parrokiako organujolea izan da eta bere lana eskertzeko, datorren urtarrilaren 15ean omenaldia egingo zaio parrokiako koruak antolatuta. Omenaldira Julian Sagasta, Erroman bizi eta nazioartean ezaguna den organujole arrasatearra etorriko da meza nagusian organua jotzera. Bestalde, Dionisio Isasmendi elorriotarra ere etorriko da, Arrasateko parrokiako organujolea izan zen eta 1929 eta 1953 urte bitartean eta gainera, Arzamendiri berak erakutsi zion organua jotzen.

Organua 1914. urtean




Urtarrilaren 15ean omenaldia egingo diote David Arzamendiri.

erosi zen eta Lope Alberdi bizkaitarrak egindakoa da. Azken horrek, Bartzelonan zuen tailerra eta bertatik ekarri zuten Arrasatera. Instrumentu hori erosi zenean biga-

rren pisuko korua egin zuten.

Arzamendi iaztik da organujole titularra eta zapatutan arratsaldeko 7etan, domeketan goizeko 11etan eta jaiegunetako meza nagu-

sietan jotzen du organua. Arzamendiz gain, honako beste hiru organujoleok ere badira: Gurutze Uribarren, Karmelo Eriz eta Rafael Agirre.



ARIANE

**Emakume
eta gizonezkoetan
barruko jantzietan
espezialistak**

**“GABON
ZORIONTSUAK
ETA
URTE BERRI ON”**

Erdiko kale, 14
Tfnoa: 79 27 33
ARRASATE





Goikobalu abesbatzako 8 partaide eta Arrasateko 4 kantore Toulousen egon dira. Bilboko Corala eta Donostiako Orfeoiaz batera. Abenduaren 8an Toulouseko kirol jauregian 6.500 pertsonen aurrean kantatu zuten Michael Plasson zuzendariaren zuzendaritzapean. Zutik: **Patxi Nafarrete,**

Iñaki Olaizola, Julito Iriondo, Jose M^o Mendizabal, Karmelo Eriz, Eugenio Etxebeste eta Jabi Arizabaleta. Makurtuta: **Jesus M^o Zabala, Juan Bta Agirre, Juan Jose Del Valle** eta **Iñaki Maidagan.** Argazkia atera zuena **Mikel Arregi.**

Azaroaren 23an Arrasateko 32 neska-mutilok lehen jaurnatzea egin zuten Parrokian. Jose Mari Astigarragak zuzendu zuen meza eta argazkiak egun horretako protagonistak azaltzen zaizkigu.



LURRINDEGIA
ERTZ
 OPARIAK
Zorionak!
 Ferrerías, 28 - behea
 ☎: 79 08 70

“PAL”
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria
 Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

URRATS
 AHOLKULARITZA
 GARIBAI, 3
 Tfnoa: 79 87 74
 ARRASATE

•ARTEA•
 Eskulanak eta lientzoak
 ENMARKAZIOAK
 Laminak, Izpiluak,
 Margoak
 Ferrerías, 11 Tfnoa: 77 10 95
 ARRASATE



Santamasetako txerria Arrasaten dago dagoeneko. Martizenean ekarri zuten Gesalibarko Elizgarai baserrira. "Txiki" izeneko txerriak 290 kilo pisatzen

ditu eta Santamas egunerako 300 bat izango dituela uste dute. Elizgarai baserrikoak oso ondo zaintzen dute eta "Txiki" ondo portatzen ei da.

Arrasateko Obejero familiak gabonetako jaiotza ikusgarria egin du. Hilabete behar izan dute jaiotzako bitxikeria guztiak egiteko eta dena prestatzeko. Dionisio Obejero eta bere emaztea, Maria Prat dira lan zoragarri horren egileak; hala ere, euren seme-alaben laguntza eta baita Mariaren amaren, Carmen Uribetxebarriaren, laguntza ere izan dute. Jaiotzan dau den apaingarri guztiak eskuz egin dituzte eta besteak beste panpinak, bustina eta kortxoak erabili dituzte. Jaiotzak 5 metroko luzera du eta 2.30ko zabalera.



Loramendi Kirolak dendak bi sari berezi banatu zituen astelehenean Behobia-Donostia maratoian lehen helmugaratu ziren

arrasatearrentzat, bai emakume mailan eta baita gizonezkoetan ere. Saria **Jabi Mentxakak** eta **Pili Valdezatek** jaso zuten.

IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

FELIPE
MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Lubia
Cinetakoak

Gabon jai eta
urteberri
zorionsuak
opa dizkizuegu

AUKERA ZABALA ZURE KONFIDANTZAZKO DENDAN

Biteri, 1 ☎: 79 66 53
ARRASATE

Mitarte, 14 ☎: 79 16 00
ARETXABAleta



IPAR CENTER

SAN LORENTZO POLIGONOA Tfnoa: 76 04 43 / Faxes: 76 04 44

Aisialdi eta denbora librerako denda

BRIKOLAJEA- ETXEA

ABENDUAN
ESKAINZA
BEREZIAK

IKARAGARRIZKO PREZIOAK

100 produktu baino gehiagotan.

- Erraminta elektrikoa
- Eskuzko erraminta
- Mobleria

ETA GAINERA, AROTZERIAKO SAILAK

Aurrekontuak: sukaldeak, ateak,
parketak, bainuak, etab...

KIROLAK

SAILAK:

- Oinetakoak
- Arropa
- Ski-kanpaina berezia:
 - Ekipamendua
 - Osagarriak

SAIL BEREZIAK

SAIL BEREZIAK:

- Jostailuak
- Larruzko prendak: kostu prezioan

EGUNERO
ZABALIK!!

ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 10.00-13.30 / 15.30-20.00
IGANDETAN: 11.30-14.00

INFORMAZIO ETA
AHOLKULARITZA
ZERBITZUA

PARKINGA

EROSITAKOAZ ZEURE
IBILGAILURAINO
GARRAIATZEA

SUKALDE ETA
ALTZARIEN
AURREKONTUAK

TXARTEL BIDEZKO
ORDAINKETAK



IPAR
CENTER

EIBAR
BERGARA ERDIA

GASOLINDEGIA

ELGETA

ZALDIBAR KORIKO Txapelketa

Futbito 94-95

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Gaizka Olabarrieta

Arabiourrutia "Hugo Sanchezen" antzera.

Txeyenex taldeko Haritz Arabiourrutia jokalaria "bikain" bat emateko moduan gaude, Los Dimy eta Txeyenexen arteko neurketan txilena erara sartu zuen gola dela eta. Zaldibarren sekula ez dela horrelako gol ederrik ikusi aipatu zuten partidua ikusten egon zirenek; Hugo Sanchezek bere sasoirik onean sartzen zituenen antzerakoa izan zen Haritzen gola, golazoa zalantza barik.

Bestalde, 9 neurketa besterik ez dira falta lehen fasea bukatzeko eta iazko datuak eskuartean hartu ezke-

ro, sailkatu nahi duten taldeek 22 edo 23 puntu lortu beharko dituzte bigarren fasera joan ahal izateko. Beraz, bigarren faseaz amets egiten duten taldeek gogoz lan egin beharko dute, azken orduan ezusterik ez hartzeko. Talde batzuk, Irati STS, esaterako, sailkatua dagoela esan daiteke, une honetan 20 puntu ditu, 10 partidutatik guztiak irabazi ondoren. Dena dela, beste zenbait talde ere sailkatzeko bidean dago, dagoeneko. Erdikaldean dauden taldeen artean egongo da lehia.



Felipe
Arrizabalaga
AROZTEGIA

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Futbito Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SALENCO Y KONP	10	9	0	1	52	22	18
CERVE LEINTZ	10	8	0	2	67	21	16
BUKANAK	10	7	2	1	44	30	16
ADELAIDA HAIZEA	10	7	2	1	49	23	16
FOSFOROS	10	7	1	2	41	12	15
ZULOAK	10	5	4	1	36	26	14
ZOTZ	10	5	2	3	30	28	12
KRISKIBALDA	10	6	0	4	35	34	12
HIREI	10	4	1	5	45	33	9
ARRAS KIROLAK	10	3	3	4	38	40	9
ATERPE	10	4	1	5	34	40	9
FRAGUEL GOL	10	3	2	5	32	36	8
GANBELAS	10	3	2	5	36	35	8
LOS DALTON	10	3	2	5	32	45	8
ASTOEB VILLA	10	3	1	6	32	46	7
INSERT COIN	10	3	0	7	38	50	6
EZTANDA EGIN	10	1	4	5	44	59	6
ILUNA TABERNA	10	2	1	7	26	57	5
BAYER LEINTZ	10	1	2	7	27	53	4
STRAUSS	10	1	0	9	32	60	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	10	9	0	1	66	15	18
PETROLEROS F.C	10	7	1	2	49	23	15
NUEVO TABERNA	10	7	1	2	49	30	15
PEPELUS	10	7	0	3	49	25	14
UGLYS TXINATO	10	6	2	2	63	24	14
SUM UGARTE	10	6	2	2	41	21	14
PUB PEOPLE	10	7	0	3	58	36	14
LOS DIMY	10	6	1	3	55	24	13
TXEYENEX	10	6	1	3	47	28	13
TOTEM	10	5	3	2	47	26	13
DANOK LAGUN	10	4	3	3	42	32	11
BERANGO SUKAL	10	5	1	4	34	29	11
ANBOTOSTE	10	3	2	5	31	37	8
NO COMMENT	10	3	2	5	24	58	8
EZKIÑAKO HONTZAK	10	2	1	7	19	57	5
MONTERREY TAB.	10	1	2	7	24	58	4
LA BANDA	10	2	0	8	21	56	4
ARRASATE ZOO	10	1	1	8	21	59	3
TOVARIXT	10	1	0	9	13	57	2
ORKATZ	10	0	1	9	17	75	1

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	10	10	0	0	60	15	20
AUTOS MURU	10	7	1	2	45	17	15
LORATEGI POTRO	10	7	1	2	36	19	15
EQUUS	10	7	1	2	56	26	15
ORLAN PIRATAS	10	7	1	2	43	23	15
KE OXTIAS	10	7	0	3	45	34	14
ARTZANKOS	10	6	1	3	33	24	13
FRANZISKANER	10	5	1	4	36	33	11
EXC. LETE	10	5	0	5	23	24	10
NABARROS	10	5	0	5	41	42	10
KOKA JUNIORS	10	4	2	4	25	31	10
BODISCA	10	5	0	5	35	38	10
PERRAHOTSA	10	5	0	5	25	31	10
FOTO IMAGEN	10	2	2	6	33	43	6
JOTAKABAU	10	1	4	5	24	39	6
BANEUKO	10	2	1	7	18	36	5
LEYA	10	2	1	7	31	58	5
POTOSORRI	10	2	0	8	24	40	4
TXOKO TABERNA	10	1	2	7	15	47	4
D.K.B	10	1	0	9	21	51	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	10	9	0	1	55	18	18
MSM ING. INTEGRAL	10	8	1	1	51	16	17
A.C SURCOS	10	8	1	1	66	36	17
D. A. IRIZTU	10	6	3	1	45	28	15
MIKELOS	10	7	0	3	50	25	14
LOS HEREDIA	10	6	1	3	47	38	13
LAUTHERBRUNNER	10	6	0	4	48	35	12
OJO AVISORE	10	6	0	4	40	34	12
SOKOAKOAK	10	5	2	3	34	30	12
BORROCK'N ROLL	10	5	1	4	45	33	11
ANORTHOSIS	10	5	0	5	28	30	10
B.Z SISTEMAS	10	4	1	5	26	31	9
TRONKOTEAK	10	3	3	4	32	48	9
KAKAJAURI	10	4	0	6	34	39	8
ALTZA PORRU	10	3	1	6	27	33	7
MOTZ	10	2	1	7	36	44	5
SUKAR	10	2	1	7	33	49	5
RESAKAS	10	1	0	9	24	71	2
TEODOLITO	10	1	0	9	26	71	2
ELISABETH	10	1	0	9	18	56	2

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan. Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

LENIZ

garagardotegia

Santamas jai zorientsuak

Iturriotz, 8
Tfnoa: 79 22 29
ARRASATE





11. jardunaldian 3 neurketa aukeratu ditugu guztien artean. Autos Muru eta Iratiren arteko neurketa ez da makala izango; lehen eta 2. sailkatuak aurrez aurre izango ditugu. DKB eta Baneukoren artekoa derbia izango da, Garagartza eta Santa Agedaren artekoa. Fosforos eta Adelaida-Haizea ere gustora ikusteko modukoa izango da.

BELARRIRA

◆ **Zigorra.** Koka Juniors taldeak zigorra jaso du, zapatuan goizeko 9etan tokatzen zitzaion neurketa epaitzera joan ez zelako. Hori dela eta, bi puntu gutxiago izango ditu eta lehen fasearen bukaeran kenduko dizkiote puntuak.

◆ **Porteriak apurtu.** Aurreko astean Zaldibarko porteria bat apurtu zelako zenbait neurketa atzeratu egin behar izan zuten eta ostegunean jokatu ziren. Ordurako konponduta zegoen baina... noiz arte iraungo ote du!

◆ **Argiekin zer?** 9. jardunaldian Zaldibarko argiak izan ziren protagonista, berriro ere. 6etan eta 7etan jokatu behar ziren partiduetan bertan behera geratu ziren Zaldibarko argiak piztu ez zirelako. Ez da lehen aldia horrelakorik gertatzen dena, beraz, argien arduradunek ganora gehiago jarri beharko dute, horrelako fundamentuaz ezin da eta urruti joan.

◆ **Golak.** 10. jardunaldian 332 gol sartu dira. A taldean 101 gol sartu dituzte eta talde onena izan dela esan behar.

EMAITZAK

A taldea

- Iluna Taberna 3 - Aterpe 9
- Strauss 3 - Cerv. Leintz 18
- Bayer Leintz 4 - Zotz 7
- Kriskibalda 6 - Hirei 4
- Astoen Villa 3 - Fraguel Gol 2
- Bukanak 3 - Zuloak 3
- Salenko y Konp 5 - Arras Kirolak 1
- Fosforos 8 - Eztanda egin 0
- Los Dalton 3 - Adelaida Haizea 9
- Ganbelas 6 - Insert Coin 4

B Taldea

- Ekiako hontzak 2 - Berango sukal. 8
- Monterrey taberna 1 - Uglys Txinto 6
- Los Dimy 2 - Txeyenex 4
- Petroleros 6 - Sum. Ugarte. 2
- Pepelus 3 Totem 4
- Orkatz 0 - Pub People 13
- Anbotste 4 - Trikiti 2
- No coment 1 - Nuevo taberna 9
- arrasate Zoo 1-La banda 3
- Tovarixrtx 2 - Danok lagun 6

C Taldea

- Potosorri 1 - Ke Oxtias! 6
- Autos Muru 4 - Equis 4
- Perrahotsa 0 - Irati STS 5
- DKB 2 -Orlando Piratas 5
- Nabarros 8- Baneuko 3
- Lorategi Potroak 4 -Foto Imagen 2
- Bodisca 6 -Koka Juniors 1
- Leya 6 -Franziskaner 6
- Artzankos Udalaiz 2 - Jotakabau 1
- Excav. Lete 7 - Txokotaberna 1

D Tadea

- Altza Porru 3 - Tronkoteak 4
- MSM 8 - Motz 0
- Borroak'n Roll 4 - Kakajauri 3
- D. A Iriztu 3 - Mikelos 1
- Sokoakoak 5 - Resakas 4
- Elisabeth 1 - Sukar 7
- Los Heredia 0 - Argi Ibili 6
- B.Z Sistemas 1 - Lautherbrunner 5
- Teodolito 8 - A.C Surcos 11
- Ojo Avisore 3 - Anorthosis 1



ETA ORAIN, BEHERAPENAK



Bizkaia Etorbidea, 1 etxeba Tfnua: 77 14 24

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES



Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnua: 77 01 57 ARRASATE

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 17

Zaldibar

- 8.50 Potrosorri - Equs
- 10.00 Monterrey - Txeyenex
- 11.00 Ganbelas - Aterpe
- 12.00 Autos Muru - Irati
- 13.00 Leya - Jotakabau
- 14.00 Orkatz - Trikiti
- 15.00 Los Dimy - Suministros Ugarte
- 16.00 DKB - Baneuko
- 17.00 Sokoakoak - Sukar
- 18.00 Petroleros - Totem
- 19.00 Salenko y Kon - Eztanda egin arte

Iturripe A

- 10.00 Astoen Villa - Zuloak
- 11.00 Strauss - Zotz
- 12.00 MsM Ing. Integral - Kakajauri
- 13.00 Anbotoste - Nuevo Taberna
- 14.00 Insert coin - Los Dalton
- 15.00 Ezkiñako Hontzak - Uglys Txinato
- 16.00 Nabarros - Foto Imagen
- 17.00 Altza Porru - Motz
- 18.00 Exc. Lete - Ke Oxtias!
- 19.00 Borrock 'n Roll - Mikelos

Iturripe B

- 14.00 Bayer Leintz - Hirei
- 15.00 No Coment - La Banda
- 16.00 Lorategi Potroak - Koka Juniors
- 17.00 Arrasate Zoo - Danok lagun
- 18.00 D.A. Iritzitu - Resakas
- 19.00 Bukanak - Arrasate Kirolak

Igandea 18

Zaldibar

- 8.50 B.Z Sistemas - A.C Surcos
- 10.00 Iluna Taberna - Cerv. Leintz
- 11.00 Ojo Avisore - Tronkoteak
- 12.00 Fosforos - Adelaida Haizea
- 13.00 Perrahotsa - Orlando Piratas

Iturripe A

- 10.00 Kriskibalda - Fraguél Gol
- 11.00 Bodisca - Franiscanner
- 12.00 Pepelus - Pub People
- 13.00 Elisabeth - Argi Ibil

Iturripe B



- 10.00 Teodolito - Anorhosis
- 11.00 Tovarixt - Berango S
- 12.00 Los Heredia - Lautherbunner
- 13.00 Artzankos Udal. - Txoko Taberna.



Goian bego

Azaroaren 29an berri penagarria jaso genuen Oñati aldetik. Uglys Txinato taldeko Iñigo Ugarte jokalaria hil egin zen kotxe istripuz. 21 urteko gazte oñatiarrak Zaldibarko txapelketan jokatzen zuen eta ezbehar baten ondoren, agur esan zigun. Lerro hauen bitartez omenaldi txiki bat egin nahi diogu Iñigori.

Pasa den asteburuan Trikiti taldeak denboraldiko lehen neurtura galdu zuen Anbotoste taldearen kontra: 4 eta 2 izan zen azken emaitza. Trikiti 18 punturekin B taldeko lehen postuan dago. A taldean Salenco y Konpañia dugu aurrean, partidu bakarra galdu eta gero, 18 punturekin. C taldean 20 punturekin Irati STS dago eta Argi Ibilik ere 18 puntu ditu eta D taldeko buruan dago. Aipatutakoak ditugu txapelketako talde onenak orain arte.



Zenbaki
Aholkularitza

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Basabe Industrialdea

Aretxabaleta (Gipuzkoa)

Tfnoak: 79 88 75 / 79 75 99

Javier Abalde Gabonetako kontsumoaz gogoetan

Urtero sasoi honetan kanpaina berezi bati ekiten dio EKI ekologista taldeak. Kontsumismoa puri-purian dugun honetan, erreflexiora gonbidatu nahi gaituzte, zoriona saldu nahi digun giroaren aurrean gogoe-ta egin dezagun. Ekologisten ardura natura zaintze-hutsetik haruntzago doa.

— Zergatik kanpaina hau?

— Sasoi honetan kontsumismoak gora egiten du asko. Anaitasuna eta solidaritatea aipatzen dira eta sekula baino nabarmenago ikusten dira injustizia sozialak. Hirugarren munduan gu baino askoz okerrago bizi dira, baina lehen mundua deitzen den honetan pobrezian bizi den jendeak osagarri psikiko bat gehiago du: derrotxeak egiten ari direnen ondoan bizi dira, eta horren ondorioz, euren bihotzetan marginazioa askoz ere gehiago sentitzen dute. "Zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta zorionsuago" markatzen digu kontsumismoak. Ideia nagusia, kontsumismoa ideia filosofiko bezala kritikatzeko da; erabat jai hipokritak dira eta kontsumismoaren alderdi depre-


datzaile eta injustua izkutatzen da horren atzean.

— Aholku batzuk ere ematen dituzue...

— Bai, logika hutsa dira gainera. Sekula ez da egon etorkizunari buruz gaur dagoen beldur eta kezka. Langa-beziaren eragina handia da eta jendeak normalean ez du hainbeste erosketa egiten, garbi ikusten da jendeak ez duela espektatibarik eta aurreztu egiten du; gero erridikulua da orain egiten direnak egitea. Horrela, aholkuen artean, garai honetan nabarmen garestitzen diren gauzak ez erostea dago, merkatuaren erregulatzaile geuk egin dezagun. Gero, bertako produktuak erostea aholkatzen dugu, gure baserriarrek bizi izaten eta natura defendatzen jarrai dezaten.

— Eta naturari buruz?

— Zuhaitzaren ohitura famatu horri buruz, etxean ipintzen bada, lurrarekin erosi eta jai dontsu hauek pasatokoan gutxienez gero umeekin joan eta landa dezatela. Naturako edozein elementuk bere lekua du, eta hantxe dago ondoen. Jendea izan dadila errespetuzkoa inguruarekin, guztiona dena zain-



tzea ere solidaritatea da eta.

— Argi dago, beraz, ekologia ez dela natura zaintzea bakarrik.

— Kontzeptu orokorra da. Mundua ere ez dela amaigabea abiapuntu hartuta, infinitoa ez den hori nola administratu pentsatu behar genuke. Gaur egungo garapen honen ondorioz, munduaren zati txiki bat eroso bizi da, gainerako guztien miseriaren lepotik. Ekologiston ardura orokorra da: mundua jaten ari gara eta hori oso lotuta dago gizateriaren zati handi bat pobreziaz azpitik bizi izatearekin, apur batzuk bizi garen moduan bizi garelako.

— Sasoi honetako erregailuen kontuaz zer iritzi duzu?

— Opariena oso nabarmena da: kate izugarri batean sartu gaituzte; Olentzero, Erregeak, gero eta garestiago, erregalua egin behararen konpromezua... sorpresa atsegina izan behar luke erregalua, maitasunez egindako akordua, eta ez egun jakin baterako egin beharreko zerbait; ez zaio balio sentimentalik ikusten, ekonomikoa bakarrik. Familia berean ere egoera ezberdinak daude eta horretan ere solidario izateko ahalegina egin behar litzateke. Jostailu didaktikoez berba egiten da, baina umeek jostailuak baztertu egiten dituzte bigarren egunean.

Zoriona erostearekin erlazioatu nahi da, gauzak edukitzearekin, eta hori berehala pasatzen da. Jostailuen kontuan, gainera, oraindik ere hor daude elementu belizista edo sexistak. Gaur egun garrantzi handia ematen zaio umeen heziketari, baina sakon-sakonean beste arazo hori dago: Umeak egoista egiten ditugu, balio sakona duenik ezer ez zaio ematen eta.

● **“Gaur egungo garapen honen ondorioz, munduaren zati txiki bat eroso bizi da, gainerako guztien miseriaren lepotik”**



de fundición - 1910-

Historia industrialak ikusgai

Maria Agirre

Santo Tomas jaiak aproposak izaten dira atzera egin eta garai bateko ohiturak gogoratu eta bizi izateko. Ferixan baxerri girqan murgiltzeaz gain, garai bateko artisauek zelan lan egiten zuten ezagutzeko aukera izaten da. Aurtengo Santamasek, berriz, beste kutsu bat ere izango dute. Arrasateko industri garapena gaitzat har-

turik antolatu den erakusketaz, garai batean zelako makinak zeuden, zein baldintzatan lan egiten zen eta zein produktu egiten zituzten ezagutzeko modua izango da.

Abenduaren 21ean hasi eta urtarrilaren 22ra arte, aspaldikoak eta ez hain aspaldikoak diren argazki, dokumentu, liburu, tresna, planu eta beste hainbat gauza erakusgai jarriko dira Monte-

rrenon, Arrasateren iragan industrialak azaldu eta garena izatera zelan iritsi garen erakusteko helburuz.

Museo industrialak sortu aurretik emango den lehen pausua da erakusketa. Museorako oinarriak biltzen dituen lana eginda dagoen arren, museo hori osatzen lagunduko duten enpresa, herritar nahiz erakundeen inplikazioa bilatu nahi da.

Isabel Aramendia, museo industrialak garatzeko lanean

diharduen teknikariaren berbetan, gure memoria historikoa osatzen lagun dezaketen objektu, liburu, argazki... eta beste hainbat gauza egongo dira arrasatearren etxeetan eta horiek aportatzea oso garrantzitsua litzateke museoak sortzeko.

BISITATU BEHARREKOA

Paneletan jarriko den informazio desberdinaz, XIII. mendetik gaur egunera arte industriak izandako bilakaera azalduko da. Horrez gain izango da beste elementurik ere, adibidez, txuri beltzean dagoen laburmetraia, 40. hamarkada ingurukoa. Pelikula horretan Zerrajerako lan egun bat jasotzen da eta duda barik, argibide asko emango dizkigu. Bestalde, denda bat ere jarriko dute eta bertan, batez ere UCEM Zerrajera eta Elman egiten zituzten tresna desberdinak izango dira, ez salgai baina bai erakusgai. Bati baino gehiagori

kostako zaigu tresna horiek zertarako erabiltzen zituzten asmatzea.

Erakusketa, beraz, erakargarria eta bitxia izango da, mondrauetar guztiok bisitatu beharrekoa. Isabel Aramendiaren ustez: "jende asko isladatuta sentituko da eta iraganaren zein etorkizunaren zatia garela ikusteko ere balio izango du. Abiapuntua industria izan arren, gainera, garai hartako beste hainbat ezaugarri (gizartea, geografia, kultura...) adieraziko dizkigute argazkiek".

NOIZTIK NORA

XIII. mendetik, burdinolak ezarri zirenetik abiatzen da erakusketa. Dokumentuz lagundurik herrian "masu-kerak" izenez ezagutzen ziren burdinolen industria zelari hasi zen, zelako funtzionamendua zuten eta ura energia bezala erabiltzen hasiak burdinolak tokiz aldatzea ekarri zuela aipatzen da hasieran.

Ondoren, energia hartzen da gaitzat; energia hidraulikoa erabiltzetik elektrizitatea erabiltzeraino industrian eman diren urrats guztiak azalduz. Erakusketaren hurrengo atala lantegien sorreraz mintzo da, Arrasateko egoera ekonomiko eta sozialean eragin handia izan zuen serrailagintzaren industria, alegia. Union Cerrajera eta Elma fabrikak sortzeak ekarri zuen lan egiteko era berria frogatzeko aukera izango da argazkien bidez eta baita zelako produktuak egiten zituzten ikusteko ere, erakusgai jarriko diren tresnen bidez. Azkenik, bi lantegi horien bultzadaz sortu ziren hainbat lantegik, eta zelari ez, kooperatibismoak ere izango dute tarterik. Esan bezala, historia industrialean zehar egindako ibilaldi horrek Arrasate den bezalako zergatik den ulertzen lagunduko digu.

Azken errementarixen omenez

Erakusketaren hasierak ikutu berezixe eukiko dau. Herrixen eta inguruetan geraketa dan errementari bakarrari, Bixente Barandiarani, omenaldixe eingo jako bere lanan errekonozimendu moduen. Oiñ bi urte Merkataritza Ganbarak sari bat emutzen 83 urteko gizon honi. Oiñ barrez, herrixen omenaje jasoko dau.

- Sekula pentsau dozu saririk jasoko zeuenik?

- Keba, sekula bez. Errementari bati premixue? Pentsau bez halakoik. Ni baiño errementari balientiauk egon die eh!! Hareik fan zien ezebe barik.

- Zeu zara inguruotako errementari bakarra.

- Oiñ errementari lanik eztau, danak gastau die.

- Zelan azalduko zuzkio gazte bati errementarixen lana zer dan?

- Errementarixak burdiñiaz itten dau lana, dana burdiñiaz. Suteixen eitten da lan dana. Burdixen erruberak, goldak, laixak, kateiak... eitten diitu eskuz. Lehenau kateiak eta eskuz eitten zien. Holaxe, beti egoten da zerbait eitteko.

- Lana gustetan jatzu?

- Lana politte da, zikiñe baina gauza politte, gogorra be bada, baiñe erremeixue hartu eiñ biher bakotxak.

- Zeinek erakutsitzun ofizixue?

- Nik Zarugalden ikasi neuen. Ugarte y Compañia fabrika eitten neuen lan eta suertau zan atsalde baten Herreronien errementari ebilen kriau batekin juntetie ta errementarixen ofi-

ziua ikasten ebilela esausten. Fan nitzen hara ikusten eta gero Jexuk Herrerok esausten fateko ofizixue ikesten eta egunien 13 erriel pagaukustela. Aittei esan nutzen eta aittek: "fan ta ikes"i. Nik 18 urte neuken.

- Zenbat denporan ikesi zeuen?

- Ikesi, ofizixue ezta behin be ikesten. Beti ikesten, beti ikesten. Lana etorten dana eindde, norberak ardurie daukonien, erakutsi hareke itten dau. Jareindde ibili ezkeru, hola ezta eitten.

- Kanpuen be eiñ dozu lan, ezta?

- Bai, Vittoixan. Betenaixo batek perratzailie bihauen da. Ha lan gogorra zan, iritzarrak altzau ta, perrau ta.... sano bihezan personie, bestela ezin leikien han lanik eiñ. Gerriek urten arte egon nitzen han.

- Gero zeure etxien jarri zeuen tailerra.


- Neuri okurridu jaten hementxe tailerra ifinttie. Fabrika lana eiñ, etorri hona, arda trago bat eiñ eta gabeko hamarrak arte, fuego! Orduen eitten zan lana, ha gauzie, ha!! Beti dirue eskuetan, gutxi baiñe beti irabazten. Kobrau "a conciencia" eitten geuen, oiño kontuik ezeuen.

- Oiñ etorten jatzu baserritarrik?

- Gutxi, etorten die behixak kojo dazenien- da. Eurek hartu ta erueten naue etxera, bertan soka bat behixe isterrien ifiñi, egur bat sartu, doblau ta, tendoia estutu, obatu indderrakin. Nik begitu, erregistrau ta gero bisturixue dauket garbiketako, gero kurie eiñ eta perrie ifintten dutzet.

- Barriro jaioko bazitze, errementari?

- Ni bai. Bueno, lana egon ezkeru, baiñe hau gauze politte da izen!!



Markoalde baserrixen bizi da Bixente Barandiaran.

Jose Mari Uranga

“Mondraue Zerrajerie izen da”

Antxiñeko bizimoru eta ohituren barri jakitako, ezta adinekuekin barriketan eittie modukoik. Hortarako, Jose Mari Uranga mondrauetarrana fan gara; 89 urteko gizon honek oso goguen dauko lehengo kontuek eta herrixen gorabehera industrialak bertatik ezagutu dittu. Berak 51 urte emun zituen Zerrajeran lanien eta bertako kontuek ederto jakittiaz gain, erakusketan izengo dien hainbat liburu zahar be gorde dittu. Baekixen, itxurie dauenez, Mondraueko industrian gaineko gauzak gordetako modukuek ziena.

— Zu zenbat urtekin hasi zitzen lanien?

— Orduen derrigorrezkue zan hamalau urte beteta eukittie lanien hasteko; horregatik, hamalau urte betetiaz bat hasi nitzen lanien. Zerrajeran eitten neuen lan, aitten albuen, bera be zerrajerue zan eta. Geruau

kontrolien ein neuen lan eta baitte kontable be.

— Zenbat langile euken orduen Zerrajeriek?

— Inox izen dauen lantaldeik haundixena euken. Mondrauen bakarrik, 1.300 lagun euzen lanien. Herrikuez gain, Atxabalta, Eskoitza, Aramaixo eta Gatzatik be etorten zien lanera. Batzuk autobusien etorten zien, beste batzuk bizikletan ero oñez.

— Kanpotarrik ez zan etorri?

— Erdeldunek be baeuzen baiñe horreik 1918 inguruen etorrik zien Mondrauera trena eitten eta gero Zerrajeran sartu zien.

— Zenbat ordu letz eitten zeueien lan?

— Zortzi ordu egunien eta astien xei egun. Goxien zortziretan sartzen gitzen eta eguerdi parterarte eitten geuen lan. Atsaldien, ostera, ordubixetatik xeiretara. Gero, Errepublika sasoién, “sabado inglesa” jarri auien eta zapatu atsaldiek jai izeten gittuen. Hortaz aparte,

astebete jai.

— Lanaz gain, ikesi be bai, ezta?

— Bai. Zerrajeran bertan hamabi bat gaztei eskolak emuteuskun Lafitte izeneko frantses batek. Batezbe teknikako gauzak erakusteskun.

— Zenbat diru irebazten zan?

— Guk destajuen eitten geuen lan, zenbat eta gehixau produziru, diru gehixau irebazten geuen. Ajustadoriek eta beste batzuk, barrez, jornal fijue eukien, euren lana ezin zan neurtu-ta. Jornala hamabostien behin emuteuskuen; hasieran gutxigora behera egunien bera-tzi erriel inguru irebaziko nittun.

— Ezelako seguru barik eingo zeuie lan, ezta?

— Jakiñe, eta dirue etxera erueten euena gizona izeten zanez, ha geixoketan bazan, sekulako dramak sorketan zien etxietan. Horrei famelixoi lagunketako kofradixak egoten zien ta laguntasun txiki bat emuten euien.

— Mondraeko ekonomixien ardatza Zerrajerie zan?

— Batzuk baserrittik bizi zien, baiñe mondrauetar gehixenok Zerrajeran eitten geuen lan. Hortaz aparte, Zerrajerak etxietara erueten euen lana eta Mondraueko etxe askotan atsaldetan be fabrikako lanak eitten zien. Langile askok lanetik urten ostien etxien eitten euen lan.

— Emakumeik baeuen Zerrajeran?

— Oso gutxi. Alargun eta erdaldunen batzuk baeuzen enpaketaziñuen. Orduen diferente pentsetan zan, baiñe esan biheda Mondraueko neskek gurau izeten euiela aberatsen etxietara krieria fatie, burdiñiaz lan eittie baño. Ezkondu baino lehen neska gazte gehixenak kapitalelara faten zien krieria eta herrixen neska gutxi egoten zanez, mutilok Bergara faten gitzen han neska asko euen eta.

— Danetik eitten zan fabriketan.

— Burdiñiaz zerkuzixe auken dana eitten geuen. Base-rrirako aperuek, etxerakuek, plantxak... Estaturen Zerrajerako katalogue prototipue zan eta kanpora be saltzen geuen, Argentina eta Txilera batezbe.

— Hain inportantie zanez, famosuek be etorriko zien...

— Primo de Rivera etorri zan eta oiñ errege dana, Juan Carlos be etorri zan umetan Zerrajerie bisittetan.

— Zerrajeriek zer ekarritzo Mondraueko herrixei?

— Mondraue Zerrajerie izen da. Geruau sortu zien fabrika danen modelue izen da, lanien erakutsi dauena. Koperatibetako fundadoriek be bertan ikesituekuek die.



Emakumiek enpaketaziñuen eitten euien lan.

ONDINDIA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGUU

Iturriotz, 11 Tfnoa: 79 12 31

Mari
Jose

Oinetakoak

Erdikokale, 20

Tfnoa: 79 22 98

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

JM

MARKIEGI

Gizonezkoen moda

Jai on pasa
eta urteberri on guztiontzat

Olarte, 2

Tfnoa: 79 15 32

ARRASATE



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta narruzko artikulua

Zorionak

Iturriotz, 4

Tfnoa: 79 14 84



GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

NAROKI

Bitxitegia

**GABON PASA DENOK
ETA URTEBERRION**

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47

BOHANIK **GAZTE** **BOHANIK**

* OPORRETAN ONDO PASATZEKO *

SANTA MARINA

GRAFFITINTZA
TALERRA

14 urtetik goikoentzat

ZIPUNTZEKO

- SAN ANDRES ETA MISAGOLAKO GAZTE TICKETAN
- GAZTE BULEGOA 770065
- TRADICILIPURDI ELKARTEA 795446

ORIBARRI-ERGIN

MALABAR
TAILERRA

*NOIZ: ABENDUAK (26, 27, 28, 29) URTARRICA (2, 3, 4)

*ORDUA 4etatik 7etara

*LEKUA: ERGUIN ETA SANTAINAKO LOKALETAN

Santamas hauetan zatoz herri bazkarira



Abarkak jantzi eta
Zatoz bazkarira
Santamas jai hauetan
ondo pasatzera

Sarrerak salgai: Hire, Monte eta AEDn Prezioa: 1.000 pta

SASKIBALOIA

● Urbina-Maltzaga taldeak C.B. Concello de Portas taldearen kontra neurtuko ditu indarrak 12. jardunaldian. Partidua, ohikoa den bezala larunbatean jokatuko beharrean, atzeratu egin dute eta igande arratsaldeko 6etan jokatuko da Iturripen. Arrasateko taldeak azken jardunaldia irabazi egin zuen CB Leon taldearen kontra, beraz, datorren igandean denboraldiko 4. garaipena lortzeko aukera ona izango du Iturripen. Bestalde, Arrasate saskibaloia taldeak antolatzen duen koadrilen-arteak gabonetako txapelketa abian jarriko dela gogoratu nahi dizuegu. Txapelketa abenduaren 23an hasiko da eta urtarrilaren 6ra arte iraungo du. Parte hartu nahi duzuenok abenduaren 17ra arte eman dezakezue izena; larunbatean partaide guztiak bileran informatiboa izango dute Monterronen eguerdiko 12etan, txapelketaren gainean zehartasun guztiak azaltzeko. Talde bakoitzean gehienez 12 jokalarik eman dezakete izena eta federatu bakarria onartuko da taldeko. Txapelketan parte hartzeko inskripzioak 10.000 pezeta balio du.



XVI. urtez Santamas Herri-krosa izango dugu Domekan.

Santamas XVI. Krosa domeka honetan

Arrasateko Atletico taldeak koadrilen-arteak eta txikientzako XVI. Santamas krosa antolatu du domekarako. Froga guztiak kutsu herrikoia izango dute eta izenemateak jaialdiaren egun eta toki berean izango dira, Herriko Plazan. Txikien frogetan, sailkapen guztiak banakakoak izango dira eta maila guztietan hiru lehenek jasoko dute garai-kurra. Lasterketa goizeko 11etan hasiko da eta 6 maila desberdin egongo dira: 13 eta 14 urte bitartekoek 800 metroko ibilbideari egin beharko diote aurre, 11 eta 12 urtekoek 600 metrokoari, 10 eta 9 urtekoek 400 metreri eta 8 eta 7 urte

bitartekoek 175 metro gainditu beharko dute froga bukatzeko. Koadrilen arteko froga 12.30etan hasiko da eta zenbait zehaztasun eman behar dugu lasteketa honen gainean. Koadrilen sailkapenari dagokionez, koadrila bakoitzeko lehen bostek puntuatuko dute. Lortutako bost postuen batuketan puntuaziorik txikiena lortzen duena izango da koadrila irabazlea. Bi koadrila edo gehiagoren arteko berdinketa egonez gero, inplikaturako koadriletan boskarren sailkatua hartuko da kontutan. Koadrila bakoitzean federatu bakarria onartuko da, kontutan izanik puntuatuz gero, hamar puntutako

zigorra izango duela. Izenez matea dohainik izango da. Antolatzaileek banatuko dituzten sariak jasotzeko herriko atletek bakarrik izango dute aukera; hala ere, arrasatearrak ez direnek ere parte hartu ahal izango dute nahi izan ezker. Irteera Olarte kalean izango da eta helmuga Herriko Plazan. Ibilbideak 6 kilometro izango ditu eta 3 buelta eman beharko dizkiote partaideek. Esandakoak esan, domekan 11etatik aurrera Arrasateko kaleak korrikalariz beteta agertuko zaizkigu eta Santamas krosean ahalik eta lan txukunena egitea izango da denen helburua.

SHOT!
grabaciones

SHOT! grabaciones S.L.
Araba Etorbidea, 3 - 2. solairua
Eskatu Pabilioia
☎: 943 - 79 37 51

ARRASATE Gipuzkoa

Jesus J. Giraldo Argüello
Liseriketa aparatua
(X Izpiak & Endoskopiak)
(Lagun-Aro, PREVIASA, Foru Aldundia, partikularrak)


Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2. B
Tfnoa: 79 04 14 20500 ARRASATE

PILOTA

● **Santamas pilota txapelketako finalak datarren zapatuan jokatuko dira goizeko 10etatik aurrera Iturripeko frontoian. 5 final izango dira: 3 infantil mailan eta 2 jubenilen mailan; hauek eskuz banaka eta binaka jokatuco dute. Txapelketa honetan infantil mailan 70 neurketa jokatu behar izan dituzte finalera iritsi arte eta guztira 24 bat mutilek hartu dute parte. Jubeniletan pilota partidu gutxiago izan da, partaideen kopurua ere txikiagoa izan delako. Horrela bada, zapatuan neurketa erabakiorrak jokatuco dira eta bide batez, 94ko Santamas pilota txapelketako irabazleak maila desberdinetan zeintzuk izango diren jakingo dugu.**

Herri Kirolak Santamasetan

Santamas egunean Herri kirolak izango ditugu Zaldibarko pilotalekuan. Egurdiko 12.30etan aizkolarien txanda izango da. Angel Arrospide, Jose Mari Olasagasti, Florentzio Nazabal eta Donato Larretxea lanean ikusteko aukera izango dugu ostegunean. Euren eginbeharra 54 ontzako lau enbor ebakitzea izango da eta beste lau 60 ontzakoak; denbora gutxien egiten duenak irabazi egingo du. Orduerdi beranduago harrijasotzaileen erakusketa izango da. Iñaki Perurenak harrijasotzaileen artean maisuak eta bere semea Iñaki txikik, zenbait harri jasoko dute herri kirolen zaleen gozamenerako. Erakusketan Iñaki Perurenak Arrasateko harria, boloharria izenekoa jasoko du. Horrez gain, harri borobil eta kubikoarekin ere hainbat saiakera egingo ditu. Seme-



Aizkolariek eta harrijasotzaileak izango dira potagonista ostegunean. ak 20tik 25 kilo arteko harriarekin egingo ditu jasaldiak. Aizkolariek eta harrijasotzaileen munduko onentzuenak izango ditugu Arrasate Santamas egunean eta ikuskizuna berotzeko eta saltsa jartzeko aurkezle lana, ia urtero bezala, Juanito Saizarrek egingo du.

EMAITZAK

<p>Futbola</p> <p>3. maila: Mondra 0 Aurrera de Vitoria 1</p> <p>2. Erregionala: Mondra 7 Gazteak 1</p> <p>Emakumeak: Mondra 2 Zumaiako 1</p> <p>Jub. Ohorezko Liga: Zumaiako 2 Mondra 2</p> <p>Jubenilak: Aretxabaleta 8 Arrasate 0</p> <p>Lehen Kadeteak: Arrasate 3 Idizabal 0</p> <p>2. Kadeteak: Urola 3 Arrasate 1</p> <p>Infantilak: Ordizia 5 Arrasate 1</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>3. Maila: Alaves - Mondra. Igandea. 11.30etan. Ibaia</p> <p>2. Erregionala: Kilimon - Mondra. Larunbata. 3.30etan. Ospas-Gain.</p> <p>Emakumeak: Lagun Onak -</p>	<p>Mondra. Larunbata. 10etan. Garmendipe.</p> <p>Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Urola. Larunbata. 3.30etan. Atxabalpe.</p> <p>Jubenilak: Arrasate - Urki B. Igandea. 10etan. Atxabalpe.</p> <p>Lehen Kadeteak: Elgoibar - Arrasate. Igandea. 12etan. Mintxeta.</p> <p>2. Kadeteak: Arrasate - Eibar. Igandea. 12etan. Atxabalpe.</p> <p>Infantilak: Aitzgorri - Arrasate. Igandea. 11etan.</p> <p>Saskibaloia</p> <p>EBA liga: CB Leon 69 Urbina Maltzaga 79</p> <p>Seniorrak Emak: Urbina Maltzaga 39 Erka Renteria 44</p> <p>Kadeteak B: Urbina Maltzaga 61 San Benito Ikastola 72</p>	<p>Kadeteak Emak A: Amigos Irun 77 Urbina Maltzaga 35</p> <p>Kadeteak Emak B: Eskoriatza 11 Urbina Maltzaga 53</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>EBA liga: Urbina Maltzaga - C.B Portas. Igandea 6etan Iturripen.</p> <p>Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga - ST Tomas Lizeoa. Larunbata. 4etan. Arrasate</p> <p>Juniorrak B: Urbina Maltzaga - Askatuak- eskola. Larunbata. 4.30etan. Arrasate.</p> <p>Seniorrak Emak: Amigos Irun - Urbina Maltzaga. Igandea. 11.45etan. Irun.</p> <p>Kadeteak B: Goierrri - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4etan. Urretxu.</p> <p>Kadeteak Emak A: Urbina Maltzaga - Gros Loiola. Larunbata.</p>	<p>12etan. Arrasate.</p> <p>Kadeteak Emak B: Urbina Maltzaga - Andraitz. Larunbata. 4etan. Arrasaten.</p> <p>Eskubaloia</p> <p>Lehen maila: Zarautz 32 Arrasate 13</p> <p>Lehen territoriala: Arrasate 16 Ormaiztegi 19</p> <p>Jubenilak: Tolosa 23 Arrasate 17.</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>Lehen maila: Arrasate - Burgos. Larunbata. 6.30etan. Iturripen.</p> <p>Lehen territoriala: Arrasate - Hernani. Larunbata. 4.15etan. Iturripen.</p> <p>Futbito</p> <p>Lehen maila: Arrasate 2 Promorioja 2</p>	<p>Arabako territoriala: Arrasate 4 B Jotaeme 4</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>Lehen maila: Ivecu - Arrasate. Igandea. 12etan. Ortuella.</p> <p>Arabako territoriala: C. Saenz - Arrasate. Larunbata. 6.30etan. Abetxuko.</p> <p>Rugby-a</p> <p>Lehen maila: Arrasate 0 Getxo 39</p> <p>Emakumeak: Algorta 25 Arrasate 0</p> <p>Emakumeak: Irun 5 Arrasate 0</p> <p>Hurrengoak:</p> <p>Lehen maila: Kakaraldo - Arrasate. Larunbata. 4etan. Plenzia.</p> <p>Jubenilak: Arrasate - Hernani. Larunbata. 4etan. Garagartza.</p>
---	---	--	--	--

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETAK




- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (musakola auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



EGIZU KEINU NATURALA

Ez zaizu ezer kostatzen



Izugarri balio du



DEBA BEHEKO
MANKOMUNITATEA


MANCOMUNIDAD
DEL BAJO DEBA




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente


Santamasetako kartelak




u
r
t
e
z
u
r
t
e




1983



1986



1984



abenduak 22

1987



1985



1988




SANTAMASAK · 1989

1989




1992



1990



1993



1991



1994

Koplak kalean, bertsoak Amaian


Arg: Juanxo Egaña



Sebastian Lizaso




Maddalen Lujanbio



Jon Sarasua

Arg: Juanxo Egaña

Arg: Aitor Gonzalez de Quintana



Angel M. Peñagarikano



Andoni Egaña

Arg: Aitor Gonzalez de Quintana

Santamasetan tradizio bihurtu da dagoeneko bertso-saioarena. Urte asko darama AEDk Santamas batzordearekin batera ekitaldi hori antolatzen, Santamasek berez ere duten euskal-jai kutsua indartze aldera.

Aurten ere punta-puntako bertsolariak izango dira Arrasaten, abenduaren 22an. Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Jon Sarasua eta Maddalen Lujanbio izango ditugu, Nikolas Segurola gai-jartzailearen aginduetara.

Urtero urtero kalitatezko saioa izaten den arren, AEDk indartu egin nahi luke bertso-saioa. Izan ere, Arrasate eta inguruetan bada bertsozalerik, baina ohiko saio honetara jende gehiago erakarri nahi da, urtean behingoa izanik. Hori dela eta, datorren urtera begira



asmo berri bat lantzen ari dira antolatzailerak.

Santamasetako bertso bakarrak ez dira, hala ere, Amaia antzokian entzuten direnak izaten. Goizeko 11etatik aurrera kalez-kale ibiliko dira trikitilari eta koplariak, giroa alaitu eta

herri bazkarirako bidea prestatzen.

Kalera irtetea, hurbildu koplariengana eta arratsaldean, berriz, patxaran jarrita bertso onik entzuteko modua izango duzu. Arratsaldeko 7etan izango da, Amaia Antzokian.

• AEDko "Arrasate 94" lehiaketako finalistak

Oraindik lehiaketa modalitate bakoitzeko irabazleak zeintzu izan diren jakitera eman ez duten arren, jadanik, finalistak zeintzu diren badakigu. Irabazleen izenak, abenduaren 19an Udaletxeko pleno aretoan egingo den ekitaldian emango dira ezagutzera.

Ipuina

Helduak: Jon Aiausti eta Aitor Payros.

Gazteak: Marta Gomez, Iñigo Muruamendiaraz eta Larraitz Uribesalgo.

Gaztetxoak: Nerea Garcia, Ekhiñe Landa

Bertsoak

Helduak: Saioa Arando

Gazteak: Mainer Osa

Gaztetxoak: Kepa Barbarias, Larraitz Iñurategi, Ainara Otamendi, Eneritz Vazquez, Nerea Zabarte

Poesia

Helduak: Iñaki Alday

Gazteak: Gartzen Anduaga, Iñigo Ezkibel

Gaztetxoak: Lorea Arantzeta

Komikia

14 urtetik gorakoak: Luis Olaizola

14 urtetik beherakoak: Maialen Egüés

Argazkia:

Amaia Arregi, Ohiana Garmendia

Diapositiba

Unai Loidi

Bideoa

Victoria Cid eta Luisa Gibaja

Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Lehiaketan

Mikel Garmendia

Junkal Perez eta Alex Zubia "Polita litzateke jende guztia baserritar jaztea"

Abenduaren 22an egiten diren ekintzen ardura euren gain dago, Santamas komisiorearen gain. Jadanik, aurtengo Santamasak eztanda egiteko prest daude, baina parte hartze handiago eskatzen dute bi elkarriketatuok.

— Santamas komisiokoa on partehartzea ez da dudan jartzen. Dena dela, herritarrek parte hartzen dute Santamasetan antolatzen diren ekintzetan?

— **Junkal:** Nik iaz beste urte batzuetan baino giro gutxiago ikusi nuen. Ez zen jende asko baserritar jantzi eta bazkari herrikoira ere ez zen jende gehiegi joan. Jendeak parte hartzen ez badu, ez dago horrelako bazkariak antolatzeko modurik; ez da nahikoa artisauak bakarrik joatea, herriko jendeak joan behar du; gainera, oso giro polita sortzen da bazkarian.

— Jende askok egiten du "Txarri dantza"?

— **J:** Egia esan, jende pila bat ibili da "Txarri dantza" ikasteko antolatu den ikastaroan, baina gero, Santamas eguna heltzen denean, atzera egiten dute eta ez dute dantzan egiten. Beraz, ez dut ulertzen zertarako joaten diren ikastarora gero benetako ordua heltzen denean dantzan egin behar ez badute. Jende hori animatu egin behar da!



— Zuen ustez, zein da partehartze eskas horren arrazoiak: hain lotsatiak dira mondrauetarrak, ala?

— **J:** Ez dakit. Kaleko giroari dagokionez, ez gara kexatzen, ezta gutxiago ere: Santamas egunean sekulako jendetza ibiltzen da kalean bueltaka, azokan, talo postuetan... zoragarria da hori, baina jendeak beste gauza batzuetan ere parte hartu behar du.

— **Alex:** Santamasak ez dira espektakulu bat, kaleko postuak ikustearekin ez da nahikoa, festan inplikatu egin behar du jendeak. Argi dago Santamasetako jaia oso polita dela, denoi gustatzen zaigu eta denok irteten dugu kalera, baina, ez litzateke politagoa

izango denok baserritar jantzikoko bagina? Oso kolore polita emango lioke horrek jaiari. Jendeak busti egin behar du eta koadrilek animatu.

— **Aurtengo programak badakar berritasunik?**

— **A:** Ez, programa betikoa da, orainarte izan duen harrera oso ona izan da eta. Dena dela, badago aldaketa bat: hainbat ekintzaren leku aldaketa. Artisauen erakusketa herriko plazan izaten zen baina orain Iokin Zaitegi plaza berrian izango da. Ganaduaren feria 4 urtean behin bakarrik egiten denez, aurtan ez da tokatzen.

— **Ganaduaren feria lehen urtero egiten zen. Zergatik**

orain 4 urtean behin?

— **J:** Azalpen logikoa du. Diputazioak horrelako feriak egiten dituzten herriei dirulaguntza ematen die, hau da, urtero herri bati. Guri lau urtean behin tokatzen zaigu eta dirulaguntza horrekin, askoz azoka hobea egiteko aukera izaten dugu, beraz, merezi du itxarroteak eta lau urtean behin, feria on bat egiteak.

— **Zenbat denbora aurretik hasten zarete Santamasak prestatzen?**

— **A:** Maritxu ondoren hasten gara gauzak antolatzen eta kontaktuak egiten, baina aurretik ere izaten ditugu hainbat gauza lotuta, kartela adibidez.

— **Azkenaldian Santamasak San Juanak baino jai hobeak direla esaten da. Zer diozue?**

— **J:** Beno, hor gauza asko daude. San Juanetan jende askok kanpora alde egiten du oporrak dituelako, beraz, herria nahiko hutsik geratzen da. Gainera, Santamasak egun bakarra dela esan daiteke eta San Juanak berriz, egun pila bat.

— **A:** Bestalde, Santamasak gabon inguruan izaten dira eta jendea etxean egoten da, ez du kanpora alde egiten eta gainera, oso jai euskalduna da. Nire ustez, San Juanak jende gazteagoarentzat dira; Santamasak berriz jende guztientzat.

.....

"Santamasak ez dira espektakulu bat, kaleko postuak ikustearekin ez da nahikoa: parte hartu behar da"

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerrias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Mila ahots eta instrumentu entzungai

Bibolin, txelo, flauta eta makinatxo bat ahots dotoreren doinuak nonahi entzungo dira datorren asteburuan. Alde bateatik, datorren larunbatean, horrenbeste hilabetetan René Zugarramurdi-ren zuzendaritzapean entsaiatzen ibili diren Hector Berlioz-en "Te Deum" obra famatua abestuko dute Goikobaluk, Gorosarrik, Bergarako Orfeoia eta Zumarragako Goi Argi abesbatzak Bergarako San



Jose Antonio Sainzek zuzenduko ditu orfeoia eta orkestra.

Pedro parrokiari. Bestalde, igandean Arrasate Musikalek antolatuta, Donostiako Orfeoia eta Letoniako Orkestra Nazionalak, F. Mendelssohn-en II. Sinfoniaren, "Lobgesang" en (Canto de Alabanza), entsaio irekia egingo dute Donostiako Orfeoiko zuzendaria Jose Antonio Sainzen gidaritzapean. Bi emanaldiak erraldoiak dira oso eta ziur musikazale asko erakarriko dutela.

"TE DEUM" A: 180 AHOTS BATERATU

Duela aste gutxi Arrasate Pressen Edurne Abasolok, Gorosarriko lehendakariak eta Gurutze Arizabaletak, Goikobaluko idazkariak adierazi zutena gogoratu behar da: "abesbatza emanaldiak dagokionez, bailara honetan sekula ez da hain gauza handirik egin". Ez da gutxiagotarako. Guztira 180 ahots bateratuko dira Baionako Orkestrako 140 musikarien laguntzarekin eta René Zugarramurdi, aipatutako orkestrako zuzendariak, korua eta orkestra gidatuko ditu. "Te Deum" obrak ordubeteko iraupena du eta 7 zatitan eta 8 ahosetara abestuko dute 4 abesbatzek.

Makinatxo bat hilabetetan entsaiatzen

ibili ondoren, datorren larunbatean Bergarako San Pedro parrokiari, espektazio handiz espero den emanaldia estreinatuko da gaueko 10.30etan. Sarrera 1.000 ptakoa izango da. Arrasatera, berriz, abenduaren 23an etorriko dira 4 abesbatzok.

PRESTIJIOZKO ENTSAIO IREKIA

Arrasaten geldiezinak bihurtu diren musika emanaldi erraldoiei

jarraipena emateko, Arrasate Musikalek beste emanaldi bat prestatu digu. Abenduaren 18an, igandean, arratsaldeko 7etan eta Amaia Antzokian, Donostiako Orfeoia eta Letoniako Orkestra Nazionaleko 100 musikariak, F. Mendelssohn-en II. Sinfoniaren, "Lobgesang" en, entsaio orokorra egingo dute jendaurrean Jose Antonio Sainzen zuzendaritzapean. Gainera, koruan 3 solistek hartuko dute parte: Marta Almajano sopranoak, Ainhoa Zubillaga mezoak eta Goikobaluko zuzendariak, Luis I. Ruiz de Alegria tenoreak.

Mendelssohn-en II. Sinfonia ederra da benetan. 1840. urtean konposatua, 3 mugimendu instrumental eta abestutako beste batez osatzen da. Inprentaren sorreraren 4. mendeurrena ospatzeko idatzi zen obra hau eta arrakasta handia izan zuen Leipzig-en ez ezik, Berlinen eta Birminghamen.

Donostiako Orfeoia eta Letoniako Orkestrak duten prestigio eta kalitateari esker, entsaioa izan arren, emanaldi ahazteza izango da eskainiko digutena. Sarrerak 1500 ptatan salduko dira bazkide ez direnentzat eta 500 ptatan bazkideentzat.

Euskal Liburu eta Diska Azoka

Abenduaren 21ean eta Txatxilipurdik antolatuta, Euskal Liburu eta Diska Azoka zabalduko da Frantzizkotarrek Sebero Altuben duten lokalean. Azoka abenduaren 24ra arte izango da eta goizez 11etatik ordubietara eta arratsaldeaz 5etatik 8etara egongo da zabalik.

Zabaltzen eta Sortalde banatzaileen liburuak izango dira bertan eta 4 urtetik gorakoentzako liburuak egongo dira salgai. Gainera, gomendatutako liburuen zerrenda ere atera da eta zerrenda hori azokan bertan egongo da kontsultarako. Azokaren zainketaz Arrasateko ikasketxeetako irakasleak arduratuko dira, txandaka. Liburuez gain, stand bat ere jarriko da AED eta Txatxilipurdiko materialeaz.

Akordeoilari irabazleak

Gipuzkoako Lehiaketan, kategoria infantilean Marina Martinez Mazak lortu zuen lehen postua. Junior kategorian, Margarita Rivas Dominguezek eta Senior kategorian, Virginia Cortes Escalantak. Gipuzkoako VII. Akordeoi Jaialdiari dagokionez, ez zen dirutan saririk eman. Nazioarteko II. Akordeoi Lehiaketan, lehen saria Claudio Jacomucci italiarrak eskuratu zuen eta 500.000 ptatan baloratuta zegoen Urrezko Dragoia, trofeoa, diploma eta datorren urterako gonbidapena jaso zituen. Bigarren postuan euskaldun bat geratu zen, Aitor Furundarena Usabiaga ordiziarrak hain zuzen ere: SUDCek akordeoilari jatorrenari ematen zion sari berezia ere irabazi zuen. Azkenik, 3. saria Sergei Voitenko errusiarrak eskuratu zuen.



1.970ean San Andres Eskolako irakasle batzuk.

S

an **Andres** Eskolako lehen irakasle taldea dugu erretratu honetakoa, eskolaren hasiera haietan, orain 25 urte ateratakoa. Ez ziren guztiak, eta urte hauetan zehar konta ezin ahala irakasle pasa da eskola horretatik; horregatik, urte gehien daramatenek ere ez dute denen izenik gogoratzen.

Kontserje lanetan Elisa San Jose izan da hasieratik eta sukaldari berriz Maxima Madinabeitia. Oraindik biak daude lanean. 1970eko otsailaren 2an ireki zuten sukaldaria eta jangela, auzoetatik etortzen ziren ume guzti haiei jatorduak emateko. Bolara

batzuetan 700 ume ere izan dira San Andres Herri Eskolan eta egunero bertan bazkaltzen zutenak, 140 inguru. Ferixalekua urtebete beranduago egin zen.

Orain eskola dagoen lekuan Atxa zerrategia eta baserria zegoen eta erreka pasatzen zen albotik.

Irakasle gehien izan den

garaietan 26 ere izan dira. Erretratu honetan ageri direnak, goitik ezkerretik hasita, **Paulino Peñin, Agustin** izeneko bat eta Leondik etorritako beste maisu bat, izenik ez dute gogoratzen.

Beherago **Norberto Casteñoso, Bernardo Hernandez** (orduko zuzendaria) eta ezezaguna.

Concepción Cuesta, Sagrario Santaolalla, Felicidad Vargas eta **Pedro Martinez**.

Lehenengo lerroan eserita ezkerretik hasita, **Nati Zugasti** (irakasleen artean oraindik bertan jarraitzen duen bakarra), **Teresa Relea, Gabriel de la Fuente** eta **Adolfo**.

UGARAN jatetxea

Fai Loriontsuak

ARRASATE ERDIALDEKO MERKATAL
ETA ZERBITZUEN ELKARTEA



ASOCIACION DE COMERCIO Y SERVICIOS
DEL CENTRO DE MONDRAGON

paseatuz erostea artea da

Abanduaren 22an, Santamasetako azoka egunean, dendak egun osoz zabalik izango dira.
Etorri, erosi eta jaso zure oparria!

egizabal



**oinetakoak
poltsak**

ferrerias, 9
☎: 79 66 01


arrasate

• AIPUA •

“Etorkizuna eraikitzen duenak bakarrik du iragana epaitzeko eskubidea”


FRIEDRICH W. Nietzsche.

• JEROGLIFIKOA •



Non irakurri duzu hori?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Goiko-balu txikiko zuzendaria. 8. Esne-tela. 10. Gipuzkoako udala. 11. (Ald.) Ogia egiten duena. 12. Kilometroaren laburdura. 14. (Ald.) Akitu aditzaren infinitiboa. 15. Euskal Autonomi Elkarte. 16. (Ald.) Zerbait egiteko era. 18. Atzeratu.

Bertikalak 1. Alabarentzat, bere gurasoen semea. 2. Anaitasunezkoa, anaitarra. 3. Neskatila. 4. Bizkaiko udala. 5. Putre. 6. Estualdi. 7. (Ald.) Sodioa. 9. Ahaide. 13. Bidaltzen den ohar edo adierazpen. 15. Ezkerreko Mugimendu Abertzalea. 16. (Ald.) Errepublikatuz, nahi. 17. Erbioa.

• HOROSKOPOA •

Aries Aurten ondo pasatu duzu, baina urtea badoa. Akabo fandangoa!

Taurus Beti ondokoari leporatzen dizkiozu zure erruak.

Gemini Gauzatxo bat egin dezakezu: behingoz ahoa itxi.

Cancer Eskutitzak idazten hasten bazara, telefonikak kiebra egingo du.

Leo Zergatik egiten duzu negar gaucero? Nahikoa da.

Virgo Esperantza eta ilusioa falta zaizkizu. Lasai, etorriko dira garai ho-beak.

Libra Gabonak datoz, janaria nonahi. Aurten kontrola zaitetz.

Scorpio Matraka galanta egina zaude. Asko ikasi duzu denbora gutxian.

Sagitarium Lanak egiten hasi bai, baina nork ematen die akabera?

Capricorn Ikasten hasteko, lehenik eta behin liburuak erosi beharko dituzu.

Aquarius Eskiatzera joaten bazara, hanka apurtuko duzu. Ez joan!

Piscis Poltsikoan diru gutxi, ezta? Jakina, kontrol barik gastatu duzu.

S. Carrascal S.L.

Bertan egindako

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak
- e. a...

Fabrian erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea 6-1 A. Tfno /FAX: 79 01 82


TELEBISTAREN TXOKOA




Santamasetako giroa zure telebistan

Datorren ostegunean programa berezia egingo dugu ATBn. Santamas egun osoan zehar kamara eta mikrofonoarekin ibiliko gara gora eta behera herri osoan zehar arratsaldeko 8.30etan programa berezia eskaintzeko: Azokako irudiak, baserritar irabazleak, kaleko giroa, herri-bazkaria, ttuntturroak, txerria, talogileak, artisauak... guzti horiei buruzko irudiak eta gehiago ikusi ahal izango dituzu ATBn eta gainera, egun horretan protagonista izan direnak platoan izango dira berbetan. Ez galdu gure programa: Santamasak telebistan ere osapatuko ditugu!

KOMIKIA



Mario Egües.



EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia**

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PROGRAMAZIOA

**18 Igandea**

21.00etan
Mondragol

19 Astelehena

13.30etan
Mondragol (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

20 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

21 Astezkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Sabino Padilla.

22 Osteguna

13.30etan
Bakarka (errep.)
20.30etan
"Santamasak 94" programa berezia.

23 Ostirala

13.30etan
"Santamasak 94" (errep.)
19.15etan
Marrazki Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete Xabier Ibarzabalek aurkeztua.
22.00etan
Marrazki Bizidunak

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Anuska, 8. Esne-gain, 10. Beasain, 11. Okina, 12. Km. 14. Akt. 15. EAE, 16. Metodo, 18. Geroratu.
Bertikalak: 1. Neba, 2. Anaitkor, 3. Neskato, 4. Ugea, 5. Sat, 6. Kin-ka, 7. Na, 9. Senide, 13. Mezu, 15. EMA, 16. Go, 17. Er.
Jergilitikoa: Liburuan.

Etxebizitzak

- **Playa de la Rotan (Torreviejan)** etxebizitza polita salgai. 43 m². Hondartzatik oso hurbil. Tfnoa: 71 63 79.

Etxebizitza alokagai Erdiko kalean, 4-5 lagunentzat. Tfnoa: 77 03 38 / 79 18 03.

- **Neska bat edo bi behar dira Arrasaten etxebizitza betetzeko.** Dei egin Gasteizko tfno honetara: 945-22 34 97. Edurne.
- **Neska behar da Donostiako erdikaldean otsailetik ekainera etxebizitza osatzeko.** 17.500 hilean. Tfnoa: 79 26 93.
- **"Pension Ederra" alokagai Iturriotz kalean.** Tfnoa: 79 12 07. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Arrasaten etxebizitza osatzeko neska behar dugu.** Hilean 9.500 pta. Tfnoa: 79 70 77. Aintzane.
- **Pisua behar dut alokagai.** 50.000 pta arte ordaintzeko prest. Tfnoa: 79 44 96.
- **Etxea saltzen da, Okendo 1 -5.A.** Tfnoa: 79 94 36. Arratsaldean deitu.

Lana

- **Sasoiko emakumea ume edo pertsona helduak zaintzeko prest.** Deitu 79 23 54 tfnora.
- **Frantsesezko mintza-praktikako klaseak** jasoko nituzke. Tfnoa: 79 22 13.
- **Etxeko lanak egin, haurrak zaindu** edo dendari lan egingo nuke. Tfnoa: 79 77 32 (M^a Carmen).
- **Baxuzko klaseak** ematen ditut. Tfnoa: 79 78 65. (Aitor).
- **Haurrak zaintzeko** edo etxea garbitzeko andra euskalduna eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.

- **20 urteko gaztea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 44 86.

- **Haurrak zaintzeko edo etxea egiteko** esperientziadun neska eskaintzen da. Esperientzia dut, eta informeak ere bai. Tfnoa: 79 76 27 (Maite). Dei egin goizeko 9etatik 11etara.

- **Haurrak zaintzeko edo etxea garbitzeko** esperientziadun neska eskaintzen da. Tfnoa 79 73 06 (Ana).

- **Emakumeak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 31 58.

- **Software neurrira.** Ikastetxeak, akademiak, lanbide liberalak, PYMEak, komertzioak eta tabernak. Tfnoa: 79 54 87. Carlos

- **Gaixo edo/eta adineko pertsonak zaintzen ditut.** Tfnoa: 945-17 07 28. Bautis.

- **Edozein motatako lanak garbira pasatzen ditut ordenagailuz.** Interesatuok deitu 79 77 59 tfnora eta galdetu Fernandogatik.

- **23 urteko neska lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 63 04. Beni.

- **Urtarriletik aurrera 4 hilabeteko ume bat zaintzeko** pertsona euskalduna behar da. Interesatuok dei egin 79 92 88 tfnora.

- **Umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko** emakume euskalduna gertu. Tfnoa: 79 56 32. Txaro.

- **Jatetxean zerbitzari lan egingo nuke.** Tfnoa: 79 56 32. Txaro.

- **Neska euskaldun eta langilea eskaintzen da** astean zehar etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko. Deitu 76 62 60 tfnora eta galdetu Aloñagatik.

- **Etxeko garbitasunak egin, haurrak zaindu edo dendari lanak egingo nituzke.** Tfnoa: 79 91 30.

- **Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditut.** OHOk maila guztiak. Dei egin 79 41 37 tfnora 9,30etatik aurrera.

Salerosketak

- **Akordeoa saldu egin nahi dut,** 80 baxu dituen. Tfnoa: 79 52 80.

- **Ixe erabili ez ditudan NIKO R objetiboak saltzeko prest.** Oso egoera onean. AF NIKON R35-70 (1: 3,3-4,5) 22.000 pta. AF NIKKO R 70-210 (1: 4-5,6) 35.000 pta. Dei egin 77 04 44 tfnora. Eguerdian edo gauzez.

- **AMSTRAD CPC 464 salgai.** Joku asko ditu. Tfnoa: 79 16 19. Valen.

- **Uribarri etorbidean garajea zabalik salgai** edo alokagai. Tfnoa: 79 85 24.

- **Negozioa martxan duen merkatal baxua salgai** leku "bikainean" Zigarrolan. Argibide pertsonalak. Tfnoa: 77 13 02. Rosa.

- **"SALBA" markako labea eta fermentadorea salgai** prezio interesgarrian. Tfnoak: 77 00 91 eta 79 23 58. Rosa.

- **"STARFORCE" kitarra salgai,** egoera onean eta merke. Harremanetarako dei egin 79 38 58 tfnora. Aitor.

Denetarik

- **Lentila kaja bat estalki berdeduna** eta lentilak barruan. Alai zinematik pasa jasotzera.

- **Urrezko pultsera esklaba galdu zait.** M^a Jose izena eta 10-5-71 data dauzka idatzita. Oroi-garri bat da eta aurkitu duenari eskertuko nioke deitzea. Tfnoa: 79 52 35.

- **Txakurra galdu zaigu.** Grisa, beltza eta zuria da, ile kixkurduna eta buztan gabea. Lepokoa eta korrea ditu. Tfnoa: 79 08 38.

- **Urrezko eraztuna galdu zitzaidan** abenduaren 13an Arrasaten. eraztunean "Nerea" dago idatzita. Aurkitzen baduzu, 79 42 70 tfnora deitu, mesedez.

Aste Gazte

Lana

• Ermuako Udalak lanpostu hauen deialdia egin du: a) menpeko lanpostu bat, b) enplegu teknikari bat, d) aparejadore-arkitekto tekniko bat, e) gizarte laguntzaile bat, f) kultur animatzaile bat, g) delinente bat, h) aukera berdinentzako teknikari bat. Epea, abenduak 21.

Bekak

• Eskoziako unibertsitatean, ikerketak zein ikasketak hedatzeko bekak, 95-96 ikasturterako. Lizentziatuei nahiz karre-rako azken urtean daudenei zuzenduak. Epea: urtarrilak 3.

- Folklore ikerketa bekak

94. Ikerketa gaiak hauek izango dira: Dantza eta koreografia, abestiak, musika, janzkera, ipuinak eta kondairak, artisautza, kirola, jaiak eta ohiturak, hizkuntza eta literatura, gastronomia. Banakoei nahiz taldeei zuzenduak. Epea: abenduak 30.

Gazte Txokoak

• Gabonetan bi tailer berri dituzue 14 urtetik gorakook: graffitti ikastaroa Santamainan eta malabarak Uribarri-Erguinen. Abenduaren 26an hasita urtarrilaren 4ra arte, arratsaldeko 4etatik 7etara. Matrikula doan. Izen emateak Musakola zein San Andresko Gazte Txokoetan, Gazte Bule-

goan edo Txatxilipurdin.

Ikastaroak

• "Mondragón Corporación Cooperativa" k antolaturik, enpresa kooperatibak kudeatzeko prestakuntza ikastaroa. Gradu-osteko unibertsitarioei zuzendua. Epea: abenduak 31.

• Urrietako "Zine aretoa" kultur elkarteak antolaturik, zineari buruzko ikastaro monografikoak: aktore zuzendaritza, soinu, argazkigintza II, zuzendaritza II. Data, matrikula-prezioa eta ordutegi ezberdinak.

Lehiaketak

"Bilbo Hiria" VII. Pop-Rock lehiaketa. Taldeak berak egindako kantez osaturiko errepertoriuma, edozein hizkuntzatan aurkeztua. Epea: abenduak 30.

"...Ez dago berez gazte arazo edo gazte kuestiorik... Gazteek gaur egungo tentsioak isladatu egiten dituzte eta beraien gizartearekin alderatuta, ez dira ez hobeagoak ez txarragoak".

ENRIQUE ARRANZ
CARABANCHELGO KULTUR
INIZIATIBAK
GABINETEKOA.



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Jose Aranzabal

zure oparia Jose Aranzabal-en duzu zain.

FORIONAKI

SONY

BERRI TXARRAK KONPETENTZIARENTZAT.



BERRI ONAK ZURETZAT.

ECOTEC 16 eta Turbo-Diesel Motore Berriak.

Ecotec, Opel motoreen generazio berria:


- Balbula-anitzetan teknologiarik onena.
- Kontsumoan %20 gutxiago.
- Potentzia eta malgutasun handiagoa.
- Kutsadura maila txikia.

Eta gainera, Turbo-Diesel berria eraginkortasun eta errendimenduan eredu da, eta baita isiltasunean ere.



Orain Ekipamendu hau Dohainik*.

- Gidarien albokoarentzat neurri handiko Airbag-a.
 - Aire girotua⁽¹⁾.
 - Itxitura zentralizatua.
 - Leihoak isteko elektrikoa.
 - Direkzio lagundua.
- Edo, nahiago baduzu, deskontu baliokidea. Eta gainera, bertsioen arabera zure Opel Astra '95berria estreinatzeko beste arrazoi asko.



* Eskaintza berezi honek stockean dauden 4 eta 5 ateko autoentzat balio du, hilabete honetan zehar.
Flotako salmentez, galde Banatzaileari.
⁽¹⁾ Gasolinazko motoreak bakarrik.

OPEL

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAGATIK ONENAK.

**10^o
URTEURRENA**

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)